

abtx07

juan mari juaristi
izar mendiguren

QEU

2,40 €

2007ko martxoa

171

gaiak

korrika 15
xirika kazeta
wikipedia
aht

zinea


film laburren zirkuitua

arteak

'celosamente gordea'



manu muniategiandikoetxea. margolaria



ezker independenttea



aralar

ezker independentista

www.aralar.net

araba@aralar.net

945 252631

HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA: KUOTA 2007

2007ko HARPIDETZA KUOTA MARTXOAREN BUKAERA-APIRILAREN HASIERA ARTEAN PASAKO ZAIZUE (20 EURO).

ESKERRIK ASKO GUZTIOI!

geu aldizkariko harpideduna izan nahi dut

> izen-abizenak: _____

> helbidea: _____ > telef zk.: _____

> hiria-herria / posta-kodea: _____ > herrialdea: _____

> kontu korrontearen 20 dijitoak + titularraren izen-abizenak: _____

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

harpidedun egin eta opari bat jasoko duzue etxean!!!

www.geugasteiz.com


geugaste@grn.es geu@geugasteiz.com

**urtean
11 ale
20 eurotan**

Pedro asua kalea-2-3.a | Geu aldizkaria
01008 gasteiz
945222153

Fundación Sancho de Salazar y Sotomayor

SUMARIOA171



GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
| Geu aldizkari taldeak egin, bideratua eta kudeatua |
erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfoa.
eta faxa: 945 22 21 53 | e-mail: geugaste@grn.es |
www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de
zarate | aldizkari batzordea: david alvez, edurne begiristain,
josune veleaz de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas
| kazetariak: josune veleaz de mendizabal, edurne begiristain,
maite lekue, saioa fdz de arangiz, ainhoa argaia, naraa cuesta
eta anakoz amenabar | azaleko argazkia: © manu
muniategiandikoetxea | argazkiak: edorta sanz | bestelako
irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez
| testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz.
de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez
| umorea: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan:
mundina, kike fdz. de pinedo, txabi arnal, erlantz urtasun,
gamarrako ostalaritza eskola | publizitatea: idoia breñas, geu
aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria |
harpidetza-publizitate laguntzailea: edurne begiristain |
inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-
582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari
hau paper berziklatuaz egin dago | GEU aldizkariak ez du
bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



zeregin 4

martxoko agenda. film laburren zirkuitua

iritzia 8

mikel irastortza

geupertsonaiak 9

arabako bertsolariak:

juan mari juaristi, izar mendiguren

euskaltasunean. gasteiz 14

mikel hidalgo

geugaia 15

wikipedia

kaletik / idazleenzutabea 18

garoña / edu zelaia

artetxokoa 19

manu muniategiandikoetxea margolaria

proposamenak /

haur&gazte literatura 23

cd-a&liburua&zinea / txabi arnal

artetxokoa 24

'celosamente gordea' saioa

batbitan 26

xirika kazeta

bathirutan 29

abiadura handiko tren

batbitan 32

korrika gasteizen

historia&euskara 34

araba eta topikoak (II)

bidaia 36

udaberria

errezeta 36

azalore eta almendra krema


umorea 37

iñigo sarasola

arababixotzian /

historiazutabea 38

mundina / erlantz urtasun





GEU ELKARTEA

FILM LABURREN ZIRKUITUA 2007:

Loturak. Ane Muñoz (19 min)
Sarean. Asier Altuna (4 min)
Xoxoak beleari ipurbeltz. Oskar Galan (12 min)
Osaba Jaxinto. Iñaki Beraetxe (17 min)
Midori. Koldo Almandoz (8 min)
Bilintx. Jon Andueza (11 min)
montehermoso kulturunean
martxoak 7, asteazkena, 20:00etan

GEUREKIN MENDIRA

martxoak 18, igandea
TELLAMENDI (835m) eta
BESAIDEra (556m) txangoa
irteera: Iovaina plazatik
ordua: 9:00etan
arduraduna: maite (945282316)

KULTUR ERROTA

martxoak 27, asteartea
HALA BEDIko CELOSAMENTE
GORDEA irratsaioko GAIZKA
AMONDARAIN eta MANEX
AGIRREk irratitik taberna girora
eramango dute euren emanaldia.
Musika, irudi eta hitzez osatutako
errezitalak Win Wendersen Der
Himmel über Berlin pelikula
izango du abiapuntu.
parral tabernan, 20:30ean

IRAKURLE KLUBA

martxoak 29, osteguna
liburua: robert walser, JACOB
VON GUNTEN, erein 2005
hikaateneoan (pintore kalea, 13),
20:00etan
dinamizatzailea: iban zaldia
>apirilean jorratuko den liburua:
koldo izagirre, NON DAGO
BASQUES' HARBOUR, susa 1997
geugasteiz.com

KORRIKA 15

KORRIKA GASTEIZEN

martxoaren 23an, ostirala
KORRIKA KULTURALA
martxoak 2: BIDE BAT (rock), gora
tabernan, 21:00
martxoak 9: KORRIKA GALA
martxoak 16: KORRIKA TXIKIA
martxoak 15: GU TA GUTARRAK
(antzokia). beñat etxepare antzokian
(iparralde g.e.), 20:00
martxoak 17: SAGARROI, azkena are-
toan, 21:00 (gauekoak)
korrika.org

ABTX 07.

KANPORAKETAK

-martxoak 2, eskuernagako luis cañas
bodegan
-martxoak 3, araiako sagardotegian
*afarietara apuntatu nahi izanez gero:
945010505 / 675707971 (arabako
bertsozale elkarteak)

FINALERDIAK

-1.: martxoak 18, gopégin
-2.: martxoak 25, aramaion

FINALA

apirilaren 21ean, gasteizen
araba@bertsozale.com
bertsozale.com

GAUEKOAK

TXALAPARTA TAILERRA

martxoak 2, 9, 16, 23
aldabe gizarte etxean, 22:00-24:00
izena-ematea (5 euro): bertan, jardue-
ra hasi arteko epean, 8:30-21:00
(astelehen-igandea) gauekoak.com
vitoria-gasteiz.org

BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ

ARTIUM

igandero, 11:30ean. doan
[taldeentzat (25 lagun gehienez) gida-
ri-zerbitzua kontrata daiteke (alde-
z aurretik abisatuz. 75 euro orora, sarre-
ra barne)]
945209010 artium.org

MONTEHERMOSO

SWITCH ON THE POWER! ERAKUS- KETA

-asteazkenero, 19:30 (irekia)
-asteartetik ostiralera, 18:00-19:00
(taldeak / aurretik hitzartu:
945161830)

vitoria-gasteiz.org

IRUÑA-VELEIA

945403044 / 652720947

veleia.com

ANDRA MARI KATEDRALA:

945255135
catedralvitoria.com

ARTIUM.

BESTELAKO EKINTZAK

argibideak & erreserbak: 945209010
sarrerak: 4 euro (helduak) / euro 1
(umeak)

artium.org

ERAKUSKETATXOAK (eleb.)

"neskato ile motzak, mutiko ile luze-
ak, futboleak egiten duten neskatoak,
etxetxoetara jolasten diren mutiko-
ak..."

atari aretoan, martxoaren 18 arte

ARTIUM txikia

(3-5 urte bitarteko haurrentzat heldu-
ren bat lagun dutela)
igandeak, 12:30-13:30
begiraleak elebidunak dira eta parte-
hartzaileek erabiltzen duten hizkuntza
erabili ohi dute
arte garaikidearekin harremanetan
jarriko dira txikiak elkarrizketa akti-
bo eta dibertigarrien ondoren adie-
razpen plastikoak lantegi bat eginez.
-KOLORETAKO AMETSAK

martxoak 4, 18

-EKIALDEKO PAISIAK

martxoak 11, 25

GOIZEAN ARTIUMen

(5-11 urte bitarteko haurrentzat hel-
duren bat lagun dutela)
igandeak, 12:00-13:30
begiraleak elebidunak dira eta parte-
hartzaileek erabiltzen duten hizkuntza
erabili ohi dute

jarduerak hauek artearen zuzeneko
esperientzia izan nahi duten haurren-
tzat dira. Erakusketetako artelanak
ikusiko dituzte lehendabizi eta, gero,
artista bihurtuko dira lantegietan.

-MARGOLANEN ETXEA

martxoak 4

-NI EZ NAIZ HEMEN BIZI

martxoak 11

-ADREILU PENTSALARIA

martxoak 18

-NIRE OINETAKOETAKO IBILTARIA
martxoak 25

ARTERAKO HITZAK:

UNAI ELORRIAGA

museoko bildumako lanetako batez
mintzatuko da
martxoak 28, 20:00etan, emanaldi
aretoan. sarrera doan / toki mugatua

ANTZERKIA

'EZIN DUT EGIA ESAN'.

JOKIN OREGI

martxoak 2, 20:30ean, federico garcia
lorca antzokian (lakua g.e.). 10 euro
'PIZTI DOMATZAILEA'.

HANKATXOAK

martxoak 11, 18:00, principal antzo-
kian (famiarentzako antzerkia). 6
euro

'SESAMO IREKI ZAITEZ'.

ANTZERKI BELTZA

martxoak 18, 18:00, principal antzo-
kian (famiarentzako antzerkia). 6
euro

antolatzailea: antzoki sarea / sarrere-
tan ohiko deskontuak daude / leihatia-
lan / telefonoz: 945161045

vitoria-gasteiz.org

HITZALDIA

JULIO IBARRA &

IÑAKI EIZMENDI

martxoak 7, 19:00, goiuri jauregian
gaia: elebitasuna (hitzaldia gazteleraz
izango da)

denoneskola.org

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

MAULE. 2007KO MASKARADAK

goizeko 10:00etan, barrikaden hasiera ordua / arratsaldeko 16:00etan emanaldi nagusiarena egutegia
martxoaren 4an: gamere
martxoaren 11an: barkoxe
martxoaren 25ean: arrokiaga

ZIGOITIA ARETOA

ANTZERKIA: MONDA & LIRONDA. 'BAIETZ LORTU!'

(haurrentzako ikuskizuna)
martxoak 11, larunbata, 18:00
sarrerak: 2 euro (haurrak); 3 euro (gazteak, 14-21 & eta jubilatua), 5 euro (helduak);
bengolarra 1, ondategi / 945464400

ARABAKO CAMPUSA. KULTURCAMPUS

FELIX UGARTE

XIV ITZULPEN-LEHIAKETA

epea: apirilak 27

FANTASIAZKO IPUIN

LABURREN XV

UNIBERTSITATE-LEHIAKETA

epea: apirilak 27

www.kultura-araba.ehu.es

IPUIN-KONTALARIA

ANDERSEN ETA BERE

IPUINAK (ITZIAR REKARTE)

martxoak 30, 18:00

ignacio aldecoa kultur etxean,
haur aretoan. antolatza: arabako foru aldundia-kultura saila

HARRESI ARETOA

(sarrerak: bertan / araba kulturala)
945301931

agurain@agurain.biz

ANTZERKIA: 'HALA BAZAN'.

GOLOKA

(KORRIKA 15)

martxoak 4, 17:30



MIKEL LABOA: 'XORIEK 17'

martxoak 23, 21:00

agurain.biz/harresi

TXOROLEKU

florida parkean

sarrerak: goiuri jauregia, emanaldiaren asteko astelehenetik ostiralera, 16:00-20:00, 2 euro

IPUIN KONTAKETA & MUSIKA

(IÑAKI CARRETERO eta UXUE ZAPATA)

martxoak 4, 11:30 eta 12:30 (2 urtetik gorakoak)

'BEHIN BAZEN...'

(ROSA Mª MTZ)

martxoak 11, 11:30 (3 urtetik gorakoak)

'IZARRAK'

(TEATRO PARAISO)

martxoak 25, 11:30 (2 urtetik gorakoak)

vitoria-gasteiz.org

010 / 945161100

HAURRENTZAKO BERTSO BARNETEGIA

(9-12 urte bitarteko haurrak)

apirilak 10, 11 eta 12

maurgan / 30 euro

izena-ematea: zuiako koadrilako udaletxeetan, martxoak 20 baino lehen. informazioa:

arabako bertsozale elkarte (945010505-615790677) / zuiako koadrila (945430167 / zuriñe-itxa-so)

SAGARRONDOTIK

martxoak 16-17

sarrerak salgai

egun bat: 21 euro

(a.a.) / 24 euro (lehiatilan).

bi egunetarako

bonoak (1.000) 36

euro. salmenta punta

gasteizen: elkar

megadenda

sagarrondotik.com



GASTEIZKO TXOSNETAN JOTZEKO MUSIKA TALDEEN LEHIAKETA

martxoaren 31 arte, parte hartu nahi duten talde guztiek beren lanak Hala Bedi irratiara eraman behar dituzte, Bueno Monreal kalea, 16 behe. Aipatutako epea bukatutakoan jasotako lan guztien artean, Juan (Hell Dorado), Unai Lobo (Betagarri) eta beste batzuen artean osatutako epai-mahaiak ekaineko asteburu batean Hell Dorado aretoan joko duten 6 edo 8 finalista aukeratu dituzte. Horietako 2 irabazleak izango dira eta Gasteizko txosnetako kontzertu bat osatuko dute.

abestiak internet bidez bozkatu ahal izango dira, talde bakoitzaren abesti bat web orrian zintzilikatuko dute eta guztion artean aukeratuak izango da Hell Doradoko finalera iritsiko den taldeetako bat. lehiaketa irekia da, bai geografikoki, Gasteiz, Euskal Herria, mundua... baita gai aldetik ere. Zenbait aspektu bereziki baloratuko dira: edukia, euskara edo emakumeak egotea, besteak beste, baina ez da beharrezkoa.

informazioa: 665722023 (jabolo)

gasteizkotxosnak.com



LIBURUTEGI BIZIDUNAK

*gonbit-txartelak dagokion gizarte etxeko liburutegian eskura daitezke, jarduera baino astebete lehenagotik

HAURRENTZAKO

KOMIKI LANTEGIA

(iñaki marañon)

martxoak 2, 18:00, ariznabarra g.e. (6-10 urte)

TXIKIAK LIBURUTEGIRA. LANTEGIA

martxoak 2, 9, 16, 23, 30, 18:00, lakua g.e. (4-6 urte, gurasorik gabe)

HITZALDIA. IPUINAK ETA

BELDURRA: 'BELDURRA ETA I

PUINEN POTEREA'

juan carlos alonso psikologoaren eskutik

martxoak 2, 18:30, iparralde g.e. (helduak)

LANTEGIA: 'BELDURTIA NI'

iñaki carreteroren eskutik

martxoak 2, 18:30, iparralde g.e. (6-10 urte)

IPUIN-KONTALARIA: 'KATIUSKA & OTSOA'

(katiuska & txotxongiloak)

martxoak 7, 18:00, arana g.e. (3-7 urte)

HAURRENTZAKO

KOMIKI LANTEGIA

(iñigo sarasola)

martxoak 14, 18:00, judimendi g.e. (6-10 urte)

IPUIN-KONTALARIA MUSIKAZ:

'ENTZUN, ENTZUN'

(iñaki carretero & uxue zapata)

martxoak 16, 18:00, ariznabarra g.e. (4-7 urte)

HAURRENTZAKO

POESIA LANTEGIA: 'HIZKIRIMIRI'

(iñaki carretero)

martxoak 20, 18:00, judimendi g.e. (4-6 urte)

martxoak 24, 11:30, aldabe g.e. (4-6 urte)

ZINEA: NOMADAK TX

filmaren aurkezpena & mahaingurua protagonistak bertan izango dira: igor ottoa eta harkaitz mtz de san vicente
martxoak 22, 19:00, el pilar g.e

vitoria-gasteiz.org

GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA
Obra Social
Caja Vital Vital Kutxa

EUSKARAZKO FILM LABURREN

TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOAREN ESKUTIK

LOTURAK (19 min)

Ane Muñoz Hondarribia. Kazetaritza eta Ikusentzunezkoak ikasi zituen eta bi alor horietan lan egiten du. Film luzeetan "skript" bezala aritzen da, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko egunkarian erredaktorea da eta prentsan eta irratian kolaborazioak egiten ditu.



Euskal Herriko nahiz estatuko jaialdietan nabarmendu dira bere lanak, besteak beste Bidasoako Nazioarteko Zine Jaialdia, Lekeitioko Bideo eta Zine Bilera, Gasteizko Euskal Filmen Astea, Medina del Campo, Huesca, Alcalá de Henares eta Gaztela Leongo hainbat festibaletan

Zuzendariaren filmografia

- Loturak (2007). 19 minutu. Pedro Ruigomez Momeñek ekoiztua, Eusko

Jaurilaritzaren dirulaguntzarekin. Jatorrizko Bertsioa: EUSKERA.

- El salto de beamon (2004). 15 minutu. Pedro Ruigomez Momeñek ekoiztua. (Proyecto Corto Canal Plus; Gaztela eta Leongo Film Onena, Medina del Campo 2004; Euskal Film Onena, Bidasoako Nazioarteko Zine Jaialdia 2004; 1. Saria eta Sari Nagusia, Lekeitioko Bideo eta Zine Bilera 2004; Publikoaren Saria, Beasain 2005; Euskal Film Onena, Gasteizko Euskal Filmen Astea 2005).

- Basurdea (2002). 14 minutu. Pedro Ruigomez Momeñek ekoiztua. (1. Saria, Aguilar de Campoo 2002; 2. Saria, Lekeitioko Bideo eta Zine Bilera 2002; Publikoaren Saria, Irun 2002; Gidoi Onenaren Saria, Medina del Campo 2003; Euskarazko Film Onena, Arrigorriaga 2003).

- El pan de cada día (2000). 12 minutu. Catá Producciones-ek ekoiztua. (Proyecto Corto Canal Plus; Egitasmoari emandako Saria, Medina del Campo 1999; Cacho Pallero Saria eta Nazioarteko Epaimahaiaren Sari Berezia, Huesca 2000; Efektu Berezia Onenak eta CAMEko 2. Saria, Alcalá de Henares 2000; INSERSOren Kultura Saria, 2000).

- Examen (1997). Betacam SP. 14 minutu.

Sinopsia

Peio hala-moduzko jokozealeak apustuekiko duen obsesioa muturreraino eramango du, ezagutu berri duen izeba Patxikaren kontura.

• aurtengo edizioak 37 emanaldi ditu (otsailaren 22tik martxoaren 30era), ia-ia iaizkoaren bikoitza

SAREAN (4 min)

Asier Altuna Bergara, 1969. Ikusentzunezkoen munduan elektrikari moduan hasi zen lanean, baina Txotx lehendabiziko film laburrak izan zuen arrakastaren ostean, Telmo Esnalekin batera zuzendua, errealizazio lanetan hasi zen, bai eta gidoiak idazten ere. 2000. urteaz geroztik, gidoilari lanak egiten ditu Euskal Telebistako hainbat programatarako, eta 2005ean (berriro Esnalekin batera) lehendabiziko film luzea zuzendu zuen, Aupa Etxebeste!.

Zuzendariaren filmografia

1996 Txotx (35 mm, 15 min)
1999 40 ezetz (35 mm, 15 min.)
2002 Topeka (35 mm, 3,30 min.)
2005 Aupa Etxebeste! (35 mm, 97 min.)
2005 Sarean (35 mm, 4 min.)

Sinopsia

Sarean iparraldeko itsasoetan gertatzen den arrantzari buruzko dokumental labor bat da.



**MONTEHERMOSO
KULTURUNEAN
MARTXOAREN 7AN,
ASTEAZKENA 20:00ETAN**

XOXOAK BELEARI IPURBELTZ (12 min)

Ozkar Galan Gernika (1978). Bermeon hasi zen antzerkiarekin, Patxi Bilbao maisu zuela. 1995.ean SMCV antzerki taldea sortu eta zazpi urtez jardun zen aktore, idazle eta zuzendari moduan, urtero antzezlan bi kaleratuz, besteak beste 'Urrutiko intxaurrak...' eta 'Anpurrek'. Madrilerako joan zen RESADERa ikasten, eta titulua ere lortu zuen neke handiz. Bertan Arlote Zinema sortu zuen Natxo Lukas eta Marta Marin kide zituela, hauekin bi antzezlan eta hiru film labor kaleratu ditu. Nahiz eta zinema munduan interesa duen, izatez, Ozkar Galan antzerki idazlea da, eta 2006.ean 'Artaud, rien de rien' lanarekin Pinto herriko antzezlan idatzien txapelketan irabazle izan da.

Sinopsia

Betiere besteengan ikusi nahi dugu gure emuen edo gure pekatuen zergatia, arrazoa eta ispilua. Film labor honek, antzinako ipuin txinatar baten bidez, erakusten digu gauzak ez direla beti gure irudimenak islatzen dituen bezalakoak; bizia, bizi bizirik. Patata pare baten truke, gure amorrua eskaintzeko prest baikaude, nahiz eta hitz batekin dena konpondu genezakeen. Film labor hau, istorio txiki bat izateaz gain, erromatar fabula bilakatzen da, historian zehar izan den esaldi famatu hori legetzat hartuz: nork hil zuen komendadorea? -Fuenteovejuna, ene jauna! Izatez, gu geu baikara Fuenteovejuna.



Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren Kultura Sailak Euskarazko Film Laburren Zirkuituaren laugarren edizioa aurkeztu zuen otsailaren 20an Donostiako KM Kulturunean. Zirkuituaren aurtengo eskaintza metraje laburreko sei filmeko 37 emanaldik osatzen dute. Filmetako bat, Ane Muñoz zuzendari hondarribitarraren Loturak izenekoa, hain zuzen ere, zirkuituan estreinatuko da.

Topagunearen zein federatutako Euskara Elkar-Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

teen helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea izaki, Federazioak antolatzen dituen ekimen guztiak xede horretara bideratuta daude. Film Laburren Zirkuituaren bidez, Topaguneak eta federatutako euskara elkarteek aukera ematen dute euskarazko film laburren produkzioa ezagutzeko, eta, herri askotako kultur eskaintza aberastu dute.

Aurreko edizioek arrakasta handia izan dute, eta horren erakusgarri argia dugu ekimenak izan

ZIRKUITUAREN 4. EDIZIOA

GEU ELKARTEAK ANTOLATU DU GASTEIZKO EMANALDIA NEFFen barruan

OSABA JAXINTO

(17 min)

Iñaki Beraetxe

Aktore lanean beti obeditzeaz potroetaraino (ejem), "agintearen" gazi-goza dastatu nahirik ekin zion laburrak egitearen... MARROI honi! (kar, kar).

'Txerri-hankak' (Dabid Errastirekin batera), 'Incomunicatio', 'Bosniarra', 'Osaba Jaxinto' eta 'Ostertx' (Iñigo Kintanarekin batera) izan dira orain artekoak.

Sinopsia

Baserriko ganbaran, erdi ilunpetan, oroitzenak eta malkoak miazkatzen ditu Osaba Jaxintok. Bakardade mingarriak eraikitako bere mundu beltz eta antzua, ordea, aldatu egingo da haurren bixita medio...



MIDORI (8 min)

Koldo Almandoz Donostia, 1973.

Film laburrak egitea atsegin du. Nazioarteko sari ugari jaso du, eta jaialdi ugari hartu du parte (Cannesko Zinemaldiko Semaine de la Critique-n, besteak beste). Dokumentalen bat edo beste ere filmatu du. Ez du film luzeak egiteko proiekturik. Egun, 'The Balde' aldizkaria zuzentzen du, eta webcamari begira egoten da, itsasoan olatuak dauden ikusteko.



Filmografia

- 1997 Razielen itzulera (16 mm, 9 min.)
- 1997 Mon petit, mon amour (16 mm, 2 min.)
- 1998 Habana 3 (documentary, 30 min.)
- 2000 A dar ba kar (35 mm, 12 min.)
- 2002 Belarra (35 mm, 10 min.)
- 2004 Amuak (35 mm, 9 min.)
- 2005 Desio Ehitaria (Video, 9 min.)
- 2006 Midori (35 mm, 8 min.)

Sinopsia

Entomologo batek Kiotoko kongresu batean parte hartuko du. Egun batean, hitzaldi batera joan beharrean, tenplu bat bisitatzea erabakiko du. Udaberriko egun arrunt bat izango da, bideo kameraren aurrean Midori azaldu arte...



• ane muñozen lan berria, 'loturak', estreinakoz ikusteko aukera egongo da

BILINTX (11 min)

John Andueza

1966ko urtarrilaren 27an jaio zen Oregonen. Informazioaren Zientzian eta Zientzia sozialetan lizentziatua, hainbat urtetan ikusi dugu kameraren aurrean. Azken hamar urteotan zuzendari eta gidoilari lanetan aritu da eta Euskal Herri nahiz estatuko festibaletan behin eta berriz saritu dute



Filmografia

- Zuzendaria eta gidoilari 'Laugarren Galeriatik' laburmetraian (1997) Euskal Herriko 5 festibaletan irabazle.
- Zuzendaria eta gidoilari 'Bemar' laburmetraian (1998) Euskal Herriko eta estatuko 13 festibaletan irabazle.
- Zuzendari laguntzailea 'Clara' TV moviean (1999) Pausoka S.A. - k ekoiztua.
- Zuzendaria eta gidoilari 'Fatimetu' dokumentalean (2000) Euskal Herrian eta Tindufen (Algeria) ekoiztua. Eusko Jaurlaritzako Emakunde sarietan irabazle.
- Zuzendaria eta gidoilari 'Aita Guria' laburmetraian (2001) Euskal Herriko 3 festibaletan irabazle.
- Gidoilari '¿Quién es Bernardeta Lewandoska?' TV moviean (2002) Pausoka S.A.k ekoiztua.
- Zuzendari laguntzaile 'El caserío perdido-Baserri Galdua' dokumentalean (2005) Antonio Mercero zuzendua, Lasarte-Oriako udaletxerako.
- Zuzendaria 'Bilintx' laburmetraian (2006).

Sinopsia

Bilintx, antzoki zaharreko kontserjea da. Azkeneko egunetan, dantzari baten eboluzioa ikusten geratzen da. Hori ikusita, kasting batera aurkeztea erabakitzen du, hainbat zailtasunei aurre egin beharko dielarik.

duen hazkundea: iazko edizioak 20 emanaldi eskaini bazituen, aurtengoak 37 izango ditu. Emanaldi kopuruari dagokionez, beraz, ia bikoiztu egin da Zirkuituaren tamaina.

Egileei dagokienez ere, Film Laburren Zirkuitua paregabeko aukera da euskarazko produkzioa ezagutarazteko plaza berriak eskainiz, herri askotara zabalduz.

Kontuan izan behar da herri horietatik asko txikiak direla eta berez zinezalea ez den ikuslea era-

kartzeko egitasmo egokia dela.

Filmei dagokienez, berriz, nabarmendu beharra dago aurtengo eskaintza pelikula berriek osatzen dutela, 2005 eta 2007 bitartekoak: Iñaki Beraetxeren 'Osaba

Jaxinto'; Oskar Galanen 'Xoxoak Beleari Ipurbeltz'; Asier Altunaren 'Sarean'; Koldo

Almandozen 'Midori' eta John Anduezen 'Bilintx'. Gainera, estreinaldi bat ere izango da zirkuituan: Ane Muñozen 'Loturak' lanarena, hain

zuzen ere.

Egileek eta ikusleek elkar ezagutaraztea ere bada Zirkuituaren helburuetako bat.

Horretarako, zenbait emanaldiren ostean, solasaldia egingo da zuzendarietako

batekin, ikusleen galderei erantzun eta bere irizkiak eta esperientziak kontatuz.

www.topagunea.org/filmlaburrenzirkuitua

Gatazka politikoa gainditzeko erronka

mikel irastortza

Zergatik dago euskara zapalduta? Galdera honi pertsona eta eragile bakoitzak erantzun ezberdina emango liokeela ez dut zalantzarik. Are gehiago, askok euskara ez dagoela zapaldurik eta euskaldunon eskubide guztiak bermaturik daudela erantzun-go lukete. Jakina, norbere estrategia eta politikaren arabera, batek baino gehiagok hizkuntza gatazka bizi dugula aitortuko balu inkoherentzia izugarria egingo luke.

Euskara ez dela politizatu behar esango digute. Euskararen alde positiboki egin behar da lan, inoren aurka egin gabe eta helburu politikorik ezin da egon euskararen zabaltze eta sustatze lan horretan. Euskararen auzia neutrala da, herritarrek erabakitzen ei dute ze hizkuntzatan bizi. Funtsean, historian zehar eta egun ere, espainiar eta frantsesak sentitzen diren gehienak eta baita abertzale sentitzen diren hainbatek ere (kontraesan nabarmena izan arren), herri honetan bizi dugun hizkuntza gatazkaren existentzia ukatu dute. Hauek guztiak kasu gehienetan diskurtso kontuak dira, eguneroko jardun eta politikak ikusiz gero, agerikoa baita Euskal Herrian hizkuntza gatazka bizi dugula. Eta hizkuntza gatazka eta Euskal Herriak estatu espainiar eta frantsesarekin duen gatazka politikoaren arteko lotura banaezina da.

Mendeetan zehar, euskararen kontrako erasoak, debekuak, lege murrizketak edo lege ezarpenak, hizkuntza politikak eta mota guztietako neurriak Euskal Herriaren ahalmen politikoarekiko harreman estuan joan dira. Estatuak herri eta hizkuntzaren arteko lotura saihestezina hitzez baino ekintzez erakutsi dute. Jakin badakite hizkuntza dela herri baten identitatearen zeinu nagusia eta hizkuntza horrekiko jarduera dela identitate hori indartu edo ahultzten duena eta lurraldetasuna marraztu edo zatitu-desitxuratzten duena. Euskal Herriaren aitortzaren ukapena eta gure geroa erabakitze ahalmen ezari lotuta joan da historian zehar gure hizkuntzarekiko jarduera ere. Hizkuntza izan da estatuen kolpeen jomuga nagusienetakoa eta ez da kasualitatea.

Eguno marko juridikoa aipatzen ari garen historia kate luzearen kate begia baino ez da. Euskal Herria ez dago aitorturik eta jakina, subjektu onarturik gabe, subjektu horrek bere geroaz erabakitzeko duen eskubidea ere ukaturik dago. Gure hizkuntzaren geroa erabakitze eskubidea ere bahiturik dugu euskaldunok. Euskarak egun duen estatus juridikoa espainiar eta frantses legeetan oinarritzen da: euskararen lurraldearen aitortza eza eta hizkuntza eskubideen ukapen eta urraketa dira estatus honen ezaugarri nagusiak. Horrek gure hizkuntzaren normalizazioa bururaino eramatea ezinezko bihurtzen du, berreskurapen prozesu horri sabai garaiezinak ezartzen zaizkiolarik. Batzuek egungo marko juridikoan euskararen normalizazioa lor daitekeela esango dute. Horixe da urte luzeotan hizkuntza politika baten magalean zabaldu den ondo jantzitako gezur

borobiletako bat. Hizkuntzaren berreskurapenean urrats batzuk eman badaitezke ere, horrek ez du esan nahi euskaraz biziko den herri batera iristeko aukerak zabalik daudenik. Ikusi besterik ez dago azken hamarkadetan, esaten zaigunaren kontra, aurreraturikoa eta aurreratu gabekoaren artean zer nolako aldea dagoen. Bakoitzak egindakoan edo egin gabean jarriko du bere diskurtsoan indarra, baina egituraz, gauza askorik ez da aldatu: euskaldunak bigarren mailako herritarrak gara Euskal Herrian eta euskara, bigarren edo ez dakit zenbatgarren mailako hizkuntza da. Erdaldunek hizkuntza eskubideak aitorturik eta bermaturik dituzte, euskaldunok sistematikoki eta lurralde osoan urratuta. Euskal Herria erdaraz bizi da, baina inork ez dio galdetu zer den nahi duena. Hor dago gatazka.

Nahiz eta alderdi batzuek, herritarren gehiengoaren kontra, traba bat bestearen atzetik jarri, azken hilabeteotan gatazka politikoa gainditzeko prozesu negoziatu eta adosturako aukerak zabaldu dira. Hortaz, hizkuntza gatazka gainditze bidean jartzeko aukerak ere hor daude, jakinda, euskara hizkuntza gutxiagotu izatetik hizkuntza normalizatua izatera iristeko bidea ez dela ahuntzaren gau erdiko eztula. Baina egun egituraz ukatzen zaiguna berreskuratzen hasteko parada daukagu. Azken batean, lurraldetasuna eta gure geroa erabakitze ahalmenaren korapiloak askatuko dituen marko juridiko berria adostea da alderdi politikoek behingoz egin behar dutena eta guztiok bultzatu behar duguna. Euskarak marko juridiko berri horretan izan beharreko estatusa zehaztu behar da: euskarak ofiziala izan behar du lurralde osoan; lehentasunezko izaera hartu behar du egungo atakatik ateratzeko; euskaldunon hizkuntza eskubideak aitortu behar dira; euskara herritar guztiek ezagutu beharko dute; eta printzipio nagusi horiek egia bihurtzeko hizkuntza politika berri bat finkatu eta abian jarri behar da. Egoera demokratiko bat ari gara aldarrikatzen, ez besterik.

Euskalgintzan lanean dihardugunok eta zer esanik ez abertzale eta euskaltzale sentitzen garen guztiok, helburu horiek erdiesteko indarra egin behar dugu. Euskal Herriak konponbidea behar du; euskarak konponbidea behar du; euskaldunok konponbidea behar dugu. Eguneroko lanarekin jarraitu behar dugu ezinbestean, euskaraz mintzatuz, gure hizkuntzaren defentsa eginez eta normalizazioa lortzeko egitasmoak eta proiektuak eraikitzen jarraituz, orain arte baino indar handiagoz. Azken batean, ukazioak ukazio, urraketak urraketa, euskaraz bizitzeko gure nahia zertzeko ez dugu sekula atsedetik hartu ezta hartuko ere. Baina gure xede nagusia lortzeko, gatazka gainditu behar duen prozesuari bultzada eman eta euskarak behar duen aterabide politikoa mahai gainean jartzeko dagokigu. Ez da ez biharko ez eta beste batzuen kontua ere. Euskaldun bezala gure herrian euskaraz libre bizitzea baita jokatzeko ari garena●

(mikel irastortza euskal herrian euskaraz taldeko kide da)


euskal
herriak
konponbidea
behar du;
euskarak
konponbidea
behar du;
euskaldunok
konponbidea
behar dugu

IZAR MENDIGUREN gaztea
JUAN MARI JUARISTI beteteranoa



**ABTX 07.
ORAINA
VS.
ETORKIZUNA**

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA
gure artean da berriz ere. Kanporaketak
jada jarri dira martxan eta finalak
datorren apirilaren 21ean izango du leku
Gasteizen.



BADATOR

Abt_x07



INTRODUCCIÓN

IZAR MENDIGUREN gaztea & JUAN MARI JUARISTI beteranoa

t. saioa fdz de arangiz
a. edorta sanz

Bertan, txapelketan beteranoak diren bertsolariak ikusteko parada egongo da, baita orpoz orpo hauen atzetik datozen promesa berriak ere. Honen inguruan eta gure lurraldeko bertsolaritzaren egoeraz solas egiteko Arabako bertsolaritzaren oraina eta etorkizuna elkartu ditu GEUK, IZAR MENDIGUREN ETA JUAN MARI JUARISTI, alegia.

Juan Mari Juaristi orain dela 26 urte Gipuzkoatik etorritako gasteiztarra dugu. Irakaslea, bertsolari beteranoa eta Arabako Bertsozale Elkarteko lehendakaria. Izar Mendiguren, aldiz, ikasle laudioarra dugu, bertsolaritzaren munduan tinko murgildu den gaztea.

IZAR MENDIGUREN GAZTEA & JUAN MARI JUARISTI BETERANOA

Nola hasi zineten bertsotan? Noiz?

Izar Mendiguren: Hiru bat urte izango dira bertsotan hasi nintzenetik. Irati, nire ahizpa, bertso eskolan ibilia zen, baina nik ordura arte bertsoak gorroto nituen. Txikitatik gurasoak bertso saiotara eraman

gaituzte, baina piloa aspertzen nintzen. Egun batean ordea, Salamanca katik kotxez gentozela Irati puntuka hasi zitzaidan eta nik jarraitu egin nion adarra joaz. Bidaia osoa bueltatu ginen kantuan, Iratik halako batean esan arte "e, Izar, bertso eskolara!". Ez naiz inoiz damutu eta beti eskertuko diot.

Juan Mari Juaristi: Ni bi arlotan ibili izan naiz beti; irakaskuntzan eta neu bertsolari gisa. Irakaskuntza da lehenagokoa, nik lan egiten dudana Koldo Mitxelena institutuan kasulitatez martxan jarri zen Bertsolaritza tailerra dela eta. Ondoren, nik neuk ere hartu nuen erronka hori eta ahalegin bat egin nuen ni ere bertsotan hasteko. Orain dela hamar bat urte hasi nintzen bertsotan.

Bertsolari jaio ala egiten da?

I.M: Jaio bainoago nik uste dut gogoak egiten duela bat bertsolari. Edonor izan daiteke bertsolari, hala nahi izanez gero behintzat.

J.M.J: Lehenengo jaio egin behar da, ezta?...kar, kar... Aspalidiko

eztabaida izan da hori eta guztiz gainditua dago, egun, elitean dauden bertsolari gehienak bertso eskolako emaitzak direlako. Bertso eskolak argi asko utzi du bertsolariak ateratzeko gai dela. Baina ez

da ahaztu behar bertsolari bakoitzaren atzean izugarritzko lan pertsonala dagoela. Gaur egun, bertso eskolara joatea ia beharrezkoa bihurtu da, bertsolariari eskatzen zaizkion lanak, gaien aniztasuna... ikaragarriak dira, hortaz, inportantea da beste bertsolariekin

elkartzea eta lan egitea. Gaur egun, bertso eskolarik gabe ez da ulertzen bertsolaritza.

Bertsolarien benetako harrobia al dago Araban?

I.M: Harrobia ez dakit, baina harrikadarik ez da falta behintzat!

J.M.J: Nik baietz esango nuke. Araban asko aurreratu da. Hala ere, lurraldez lurralde begiradatxo bat ematen baldin badugu, Araba da lurralde ahulena, bere egoera soziolinguistikoa eta ohitura faltagatik. Izan ere, asko aurreratu dugu, baina baita gainontzeko

**gero pixka bat
gazteagoak gaude,
sorpresaren bat
edo beste emanez
horrokatzeko prest
gaudenok**

juan mari juaristi

adina: 47 urte

ogibidea: koldo mitxelena institutuko irakaslea

afizioak: bertsolaritza, bizikletaz ibiltzea

bertsolari bat: andoni egaña

bertso bat: 2005 urteko arabako bertsolari txapelketan, otamendik egin zuen azken agurra, beteranoei dedikatu zигun eta.

doinu bat: espainian behera...



izar mendiguren cosgaya

adina: 18 urte

ogibidea: kazetaritza ikaslea

afizioak: parranda, txatxara... saltsa duen edozer

bertsolari bat: oihana bartra

doinu bat: mexiko, kuba eta...

bertso bat:

haurra kaiolarekin etxean

eta amona begira;

zazpi txori ditu umeak ta

negar malkotan hasi da

-zazpi ditut ta etzaizkit sartzen

-amonak: lasaitu, tira!

nahi baldin bada eman ahal zaio

arazo orori bira

...umea kexu, iluntasuna

atera dio argira

"kaiola zabalik badaukazu

guztiak sartuko dira"

lurraldeek ere. Bertan bertsolaritza osasuntsu eta indartsu dago. Araban anekdotiko izatetik, izatera pasa da.

Hortaz, gure lurraldeko bertsolaritzaren osasuna ona dela esan daiteke?

I.M: Ia umezurtz hezi gara, Gipuzkoan lehen ere bazen Txirrita, Iparraldean Xalbador...

Hasiera guztiak dira gogorrak, baina gabiltzan artean ezin daiteke gaixo dagoenik pentsatu. Batzuetan makalago egongo gara, bestetan indartsuago..., baina oraindik

gaur egun, bertso eskolarik gabe ez da ulertzen bertsolaritza

Arabako bertsolaritzak gerra asko du emateko eta asko dira hezkuntza arautuan, bertso eskoletan... dabilen pertsonak, beraz, aurrera goazen heinean ez gaudela sano egia da, baina gaixo gaudela ez.

J.M.J: Nik esango nuke hobekuntza handia egin duela, baina oraindik lan asko egin behar da, gure baldintzak zailak baitira. Bai bertsolari izan nahi duenaren aldetik, zein entzulearen aldetik ere. Bidea egiteko dago eta osasun hori hobetu daiteke, egin dugunari meriturik



kendu gabe noski. Gazteei bideak ireki behar dizkiegu.

Azken urteetan beti izen berberak errepikatu izan dira finaletan. Zeren seinale da hori?

J.M.J: Bai, hala da, estankamentu bat ikusten da eta hori aztertzekoa da. Helburua gazteen garapena

ziurtatzea da eta haiek etortzea atejoka. Sanoena litzateke urtez urte sorpresak izatea finalean, batzuk kanpoan geratzea, beste batzuk, aldiz, atzetik gogor etorri direlako, finalean sartzea eta gorabehera hori izatea, nire aburuz, txapelketa batentzat osasuntsua da. Alde

horretatik, egia da, finala nahiko egonkortu dela eta hori txapelketa-ri begira ez da oso ona. Hortaz, urtean zehar lan egiten jarraitu behar dugu hori aldatzeko. Hauxe da, beraz, gure erronka.

I.M: Nire ustez, belaunaldi ezberdinak dauden seinale da. Batetik, beteranoak daude (Otamendi, Juaristi, Rikardo...) finalean ez bada finalaurrekoetan geratzen direnak. Bestetik, gazte belaunaldi bat bada; Oihane, Zigor, Ruben, Viñaspre... nahikoa eskarmentu dutenak eta finalean sartu ezean muga ibiltzen direnak. Eta gero pixka bat gazteagoak gaude, sorpresaren bat edo beste emanez borrokatzeko prest gaudenok.

Aurtengo ABTX 07ren finala apirilaren 21ean izango da. Bota zuen apustua...

I.M: Oihane Perek irabaztea nahiko nuke nik, besteek gutxiago ez baina ondo merezia du eta bada ordua!

J.M.J: Nire ustez finala irekia izango da... nik beti esan dut finalista guztiok, saio on bat eginez gero, irabazteko aukera badaukagula. Baina horretan, eguna, presioa, bakoitzaren autokonfiantza edo mamuek... eragin handia izaten dute bertsolariengan●

euskara
dastatu
GEUrekin

15

maiatzak 11

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

Tl. 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA

Harategia

FLORIDA AZOKA 2 eta 3 % 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 % 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



El Clarete

JATETXEA



UNAI ETA PATXI FERNANDEZ DE RETANA

ZERKABARREN KALEA, 18

01008 GASTEIZ

945 263 874

IRYSTA

TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak



Zure arropa eta oinetakoa

www.sartudenda.com

Kubilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710



Espezialitateak, astrolabea, txakurak

JANTOKI
BEGETARIANOA

SAN FRANCISCO XABIERKOAIGEN KANTOA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 65 33

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tl: 945 22 34 33

ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

EYSKAL LABELA

LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko

haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confecciones

Pinedo

Jantziak

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ

Tfnoa: 945 23 39 90



- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.

Goiain Industrialdea

Tl/fxa: 945 465 921

Tl. 627 417 747

info@egur.es

www.egur.es

01171 Legutiano (Araba)



eusko

alkartasuna

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



Gazte

Abertzaleak

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI



bitxiak / zilarra / osagarriak

etor zaitez udaberriko bilduma ezagutzera!!!

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



Mikel Hidalgo:

"Erakusleiho bihurtu nahi dute Gasteizko Alde Zaharra, auzokideen iritziak isilaraziz"

t. ainhoa arriaga Et naraa cuesta

a. edorta sanz

Duzun biziorik handiena? Duela hilabete azazkalak jateari utzi nion behingoz. Benetako meritua da niretzat.

Bertuterik? Lagunen laguna eta alaia naiz, baina batzuetan pailazokeria gehiegi egiten ditut.

Akatsik? Oso burugogorra naiz, eta egoera erabakigarrietan urduriegi jartzen naiz.

Zer baloratzen duzu gehien gai-nontzekoengan? Fidelotasuna eta errespetua. Oinarrizko printzipioak direla uste dut.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Euren helburuak lortzeko asmoz edozein zapaltzeko gai diren pertsonak.

GEU elkartearen eta aldizkariaren berririk? Noiztik? Ez dut data gogoratzen, baina bai ezagutzen dut.

Beldurrik? Askok. Maitatua ez sentitzearen bakardadea, esate baterako.

Oporrak non eta zertarako? Munduko edozein lekutan barrena. Ez nengoke leku bakar batean geldirik denbora gehiegi, baina lasaitasun momentuak ere beharrezkoak dira.

Nora ez zinateke joango? Aurretik

egondako leku batera. Munduan leku asko daude ikusi eta gozatu beharrekoak.

Zer da Gasteizek duen onena? Auzoetako bizitza. Zaramagan bizi naiz eta bertan, gazteen artean bereziki, harreman sendoak sortzen dira.

Eta txarrena? Alkatea, duda barik. **Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?** Gero eta errazagoa dela esango nuke.

Zein da zure hiriko txokorik gogokoena? Matxete plazaren inguruko zonaldea. Gasteizko xarma berezia bete- betean jasotzen du.

Ados al zaude inguru horietan aurrera eramango diren eraberitze planekin? Auzokideentzat onura gutxi ekarriko ditu, merkantilista hutsa den plan baten aurrean gaude.

Amets bat? Gaur egun Euskal Herriak bizi duen askatasun falta gainditzea.



Asteburueta plano? Aste bukearen parranda eta momentu lasaiak uztartzea dut gustuko.

Iragana, gaur eguna ala etorkizuna? Hirurak koktelera batean sartu eta nahastu ostean lortzen den emaitza.

Zer eskatzen du herriak? Askatasuna●




Gasteizen jaio zen Mikel duela 21 urte, eta hiri honetan igaro du bere gaztaroa. Musikazalea da oso, eta mendira zein hondartzara joateko edozein momentu aproposa dela uste du. Instalatzaile industrial moduan lan egiten du, eta denbora duenean eskalatzeraz joan ohi da. Buruan gauza gehiegi izan ditzake, baina egoera kaotiko horiek lasaitasunez hartzen ikasi behar dela dio.




Wikipedia hitza gero eta ezagunagoa egiten ari da.
Hitz bitxia da, interesgarria, berria. Atzean duen egitasmoa
bezain bitxia, interesgarria eta berria. Wikipedia mundu osoko
milaka boluntariok sortu duten entziklopedia askea da.

■ Probak egin ditzakezu Proba orrian

Wikimediaren beste proiektuak





t. edurne begiristain a. edorta sanz

Munduko hizkuntza guztietan eta mundu guztiak idatzitako eduki askeko entziklopedia bat egiteko egitasmoa da. Nola funtzionatzen duen jakin nahi? Zein helburu dituen ezagutzeko irrikitan? Hona hemen Wikipediari buruzko informazioa.

Jimmy Wales, Wikipediaren sortzaileetako baten hitzetan honakoan datza egitasmoa: "Entziklopedia bat hizkuntza anitzetan sortu eta zabaltzeko ekimena, ahalik eta kalitate gorenekoa, planetako pertsona ororentzat, beraien hizkuntza edozein dela ere".

2001eko urteko urtarrilaren 15ean sortuta, bizkor hasi da Wikipedia sarean txoko bat egiten. 2000. urteko martxoaren 9an, Nupedia izeneko entziklopedia askea jaio zen interneten. Egitasmo hartan "adituek" hartu zuten idazteko ardura. Ala-

wikimediaren beste proiektuak: wikiztegia; wikiliburuak; wikiesanak; wikipediariak; wikispezieak; wikialbisteak; meta-wiki; edukierak

baina, urtebete geroago Nupedia betiko aldatu zen, bertan lan egiten zuen editoreetako batek wiki bat irekitzea proposatu baitzuen, hots, edonork bere ekarpenak egiten ahalbidetzen duen web tresna. Handik bost egunera jaio zen ofizialki Wikipedia entziklopedia librea.

Entziklopedia askeak gero eta artikulua gehiago ditu, gero eta handiagoa eta osatuagoa da, eta kasu askotan paperezko entziklopediek dituzten baino artikulua gehiago izatera iritsi da. Helburu argia du Wikipediak, bere web orrian azaltzen duenez: doako entziklopedia bat egitea, alegia, historiako entziklopediarik handiena egitea, freskotasunari eta zabalerari dagokienez, bederen. Wikipedia "doako iturri fidagarria" izatea nahi dute sor-

atalak: natura zientziak; gizarte zientziak; zientziak; arte eta kultura; informatika; kirolak; aisia; euskal herria

tzaileek, jakinda asmo handiko egitasmoa dela eta urteak emango dutela horretan.

Wikipedia Wikimedia Fundazioak zuzentzen du. Wikipedia zerbitzailearen jabea eta *domain* izena Bomis Inc. da. Eta konpainia horren zatirik handiena Jimmy Walesena da, webgunearen kostuen

zati bat ordaintzen duena. Baina, jendeak artikulua idazten ditu copyright askearen lizentziarekin, hots, artikulua askeak dira. Hortaz, Wikipediaren artikuluen arduradunak wikipediarrak dira. Edozeinek parte hartu dezake ekimen honetan. Jakin beharreko gauza bakarra da orri bat argitaratzeko, bai eta alde aurretik zertaz idatzi nahi duzun jakitea ere. Dohainik da, eta edonork gehi diezaioke nahi duen gaiari buruzko sarrera. Arduradunak ez duenez, jendeak argitaratu ahala hedatuko da idatzitakoa.

Hizkuntzak


Wikipedia entziklopediaren helburuen artean hizkuntza bakoitzeko Wikipedia bat sortzea da. Egun 250 hizkuntzatan idatzitako edizioak ditu. Euskarazko bertsioa ere badugu euskaldunok: www.eu.wikipedia.org. Lerrook idazteko orduan, 16.502 euskarazko artikulurekin ari da lanean Wikipedia. 42. postuan dago euskara, sarrera kopuruari dagokionez. Eta 14. postuan, hiztun kopuruaren eta idatzitako artikuluen alderapena eginda.

Hizkuntza erabilieneen artikulua kopuruei erreparatuta, ingelesa da sarre-
ra gehien duen hizkuntza, 1.638.017 artikulurekin. Eta jarraian honakoak daude:

Alemaniera: 541.000+, Frantsesa: 443.000+, Japoniera: 327.000+, Italiara: 258.000+, Poloniera: 347.000+, Portugesa: 239.000+, Espainiera: 201.000+...

Euskaraz idatzitako lehen artikulua 2001eko abenduan izan zen, Wikipediako estatistiken arabera. Literatura izan zen lehen sarrera. Hurrengo urtean, soilik bi sarrera erantsi ziren euskaraz. Eta hasierako lehen artikulua, berriz, honakoak izan ziren: Johannes Kepler, Tycho Brahe, 200. urtetik 250. arteko kronologia, Afrika, Kimika, Sare lokala, Nafarroako erregeen zerrenda, Historia eta Esperantoa.

Baina euskarak ez zuen benetako jauzia eman 2004. urtera arte. Urte hartan Wikipedian 44 artikulua inguru erantsi ziren. Eta hortik aitzina, euskarazko Wikipediak azkar egin zuen gora, etengabe handituz. Iazko urteko amaieran, gainera, Asteko Herrialdea izeneko Wikiproiektua jarri zuen abian euskarazko Wikipediak. Egitasmo horrekin astero herrialde baten inguruan ahalik eta informazio zabalena jaso eta entziklopedian eranstea da helburua.



Bost oinarriak

Honako bost zutabetan oinarrituta dago Wikipedia:

>Wikipediak entziklopedia orokorretatik, bereiztuetatik eta almanaketatik hartutako elementuak ditu. Baina Wikipedia ez da hiztegi bat, ezta jatorrizko testuen bilduma bat, propaganda makina bat, egunkari bat, doako zerbitzari bat, webgune bateko hornitzailea, autopromoziorako orrialde bilduma, anarkia edota demokraziari buruzko esperientzia edo loturen direktorioa ere. Ez da iritziak, esperientziak edota argudioak adierazteko gunea. Editatzen duten guztiek saiatu behar dute Wikipedia lehen mailako iturri bilakatzea, eta artikulua ahalik eta zehaztasun handienarekin egitea.

>Wikipediak ikuspuntu neutrala bilatzen du. Horrek eskatzen du informazioa ahalik eta ikuspuntu desberdinenetatik ematea, ikuspuntu bakoitza zehaztasunez azaltzea, testuak testuingurunean kokatzea irakurleak ahalik eta hobekien uler dezan eta ikuspuntuak "hoberenak edo egiazkoak" bailiran ez azaltzea. Horrek eskatzen du egiaztatu daitezkeen iturriak aipatu behar direla, ahal den neurrian, eta bereziki gai polemikoak jorratzen direnean.

>Wikipediak eduki librea dauka, hartara testu guztia GNU (GFDL) dokumentazio librerako lizentziapean dago. Horrek esan nahi du Wikipedia banatu daitekeela eta loturak egin daitezkeela. Idazten duzun edozein testu editatua eta banatuta izan daiteke.

>Wikipediak etiketa arau batzuk jarraitzen ditu. Wikipedian ibiltzen diren lagunak errespetatzea ezinbestekoa da, haiekin desados egon arren. Besteari erasotzea ekiditu beharra dago. Giroa berotzen denean lasaitasuna mantendu beharra dago; edizio gerrak saihestu... Fede onez jokatu beharra dago, Wikipedia aldatu beharrik ez dago norberaren argudioak babesteko. Izaera irekia izan behar da, besteen iritziak aintzat hartuz.

>Wikipediak ez du arau zorrotzik, arestian aipatutakoak izan ezik. Orriak editatzeko ausardia behar da, eta ez da zertan erabat perfektua izan idatzitako testua. Ez da beldurrik izan behar, editatuz gero dena hankaz gora jartzeko arriskurik ez baitago. Artikulu guztiak gordeta daude, beraz, Wikipedia hondatu edo bere edukia suntsitzeko arriskurik ez dago. Hartara, gogoan izan: idatzitako guztia betikoz geratuko da.

[naroa cuesta & ainhoa arriaga]

GAROÑAKO ZENTRAL NUKLEARRA

Gaur egun, 500 zentral nuklear inguru daude funtzionamenduan munduan eta estatistikek dioten 5 urtetan behin istripu nuklearra izateko dagoen probabilitatea kontuan hartzekoa da. Hurbilen dugun kasuak eragiten digu gehien guri, batez ere duen egoera txarragatik: Garoñako zentral nuklearra. Gobernu espainiarrak 2009rako itxiko duela esan duen arren, epea luzatzeko nahia susmatzen du hainbatek. Izan ere, zentralaren jabe den Nuclenor-ek inspekzio berri bat eskatu baitu. Horra hor Gasteizko kaleetan jasotako gaiarekiko zenbait iritzi:

1.- Zer deritzozu hemendik hain gertu zentral nuklear bat izateari?

Ze arrisku ikusten dizkiozu?

2.- Herritarrek benetako arriskuez jabetzen direla uste duzu?

3.- Zein irtenbide proposatuko zenituzke?



Jokin Sarriegi, irakaslea

- 1.- Denek esaten dutena, ez? Inork ez du horrelakoik nahi bere etxe alboan. Oso zaharkituta dago eta itxiera luzatzen jarraitzen dute. Gauza geroz eta "txungoago" dago.
- 2.- Ez dut uste, jendea oso lasai bizi da. Ez gara existitzen denaz ere gogoratzen.
- 3.- Ba ixtea, argi dago.



Zigor Zugurruti, galdaragintzako langilea

- 1.- Nik uste apur bat arriskutsua izan daitekeela ihesen bat edo egoten bada. Jendearekiko arriskuak ez ditut ondo eza-gutzen, baina hala ere, nuklear hitza berez beldur nahikoa-rekin hartzen dugu. Ni bertan biziko banintz beldurraekin biziko nintzatekeela uste dut.
- 2.- Ez dut uste. Hemen ez denez sekula ere ezer gertatu, jendea trankil dago. Betikoa da, pasatu arte, eta pasatzen denean berandu izaten da.
- 3.- Instalazioak nahiko gaizki daude eta agian, hain zaharra den zentrala itxi beharko litzateke, denon segurtasunerako.



Maria Jimeno, botikaria

- 1.- Egia esateko, oso gaizki iruditzen zait. Izan ere, osasun-erako kaltegarria dela suposatzen da. Egon badaude beste era batzuk energia hori lortzeko.
- 2.- Dena da politika, betiko moduan. Seguruenik diru asko egongo da jokoan eta azken finean energia lortzea beharrezkoa dute. Herritar batzuk bai jabetzen direla arriskuez, baina beste batzuk ez.
- 3.- Beste energia mota batzuk erabiltzea. Energia eolikoak, haize errotekin esaterako. Eguzki plakak ez, hemen ez dugu-lako eguzki askorik izaten. Baina hori, energia lortzeko bide desberdinak topatzea, hain kaltegarriak ez direnak, noski.

IDAZLEENZUTABEA

LEIHOAK PIZTU

[edu zelaia]



"Edozein artistak, ezer baino lehen, BEGIRATZEN jakin behar du. Bertsorik ederrenak, metaforak, istoriorik bikainenak... begirada batetik jaio dira. Beraz, abia gaitzen kalera eta zabaldu begiak. Inork irakatsi al dizu begiratzen inoiz? Badakizue zenbat jende bizi den euren ingurukoari kasu egin gabe?"

Arestiko adierazpenok globalizazio neoliberalaren kontrako foro batean entzun balitezke ere, DBHko 3. mailako testu liburu baten hasieran aurkitu ditut. Lehenbiziko lerro hauek irakurri ondotik, bi aukera etorri zaizkit gogora: edo memoria arrunt flakatu zait, edo nire denboran ez zegoen halako eskola materialik (ez naiz ni gazteegia dagoeneko zaharren pare ari-tzeko?). Pedagogia berria omen da.

Halaber, ikastetxeen curriculum proiektuak irakurrita, gure gizarteak dituen gaitz larriene-tako batzuk sendatzeko bidean daudela pentsa genezake, eskolak ikasleei bizitzarako balore-rik funtsezkoenak transmititu nahi dizkielako: pertsonen eta herrien aniztasuna, generoen arteko berdintasuna, norberaren izpiritu kriti-koa, elkartasuna edota ingurumenarekiko errespetua, besteak beste. Hauexek omen dira ikastetxe gehienek lortu nahi dituzten helbu-ruak. Ez badidazue sinesten, aski duzue zuen seme-alabaren ikastetxeko hezkuntza proiektua eskatzea (gainera, oraindik gogoan izango duzuenez, horregatik erabaki zenuten bertan matrikulatzea).

Alabaina, kontuak ez dira ondo ateratzen. Izan ere, inoizko material, pedagogo, didaktika-ri, irakasle eta ikasleak (baita gurasoak ere, jakina) ditugun honetan, nola liteke egungo mundua den bezalakoa izatea? Eta, kasurik onenean, noraino hel daiteke eskolaren eragi-na? Kaleraino? Etxeraino?

Nago eskolak eraikitze duena gizarteak berak ez ote duen egunero eraisten. Nago geuk ere ez ote dugun desegiten, etxean nahiz kale-an. Zeren eta, badakigu guk zenbat jende bizi den ingurukoari kasu egin gabe? Akaso, hartara ere begiratzen ikasi beharko dugu helduok. Telebista itzali eta leihoak piztuz, adibidez●

MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA, margolaria:

"Erotismoa beste hizkuntza bat da, ukitu bat da"



Marrazki erotikoez osatutako artelana egin du Manu Muniategiandikoetxea (Bergara, 1966) margolariak. Hamabost hilabete eman du liburua prestatzen, eta azkenean kalean da. Teknikoki oso landua, eta ñabarduraz betetako liburua kaleratu du. Teknika kontuak ez ezik, marrazkien bidez erotismoa nola deskubritzen joan den ere azaldu dio artistak GEUri. Gasteizen Artium museoan aurkeztuko du Manuk bere lana martxoan zehar.



t. edurne begiristain a. edorta sanz

Marrazki erotikoez osatutako liburua egiteko prozesua nolakoa izan da? Nola sortu zen ideia?

Egitasmo luzea izan da, duela zortzi urte inguru sortutako ideiatik jaio da. Donostiako Gallineroa estudioan nenbilen, eta bertako serigrafoak, Laureano Olaetxeak, komentatu zidan liburu bilduma bat egiteko asmoa zuela, artista liburuaren bilduma bat. Bere nahia zen edizio bat egitea, hau da, serigrafian edizio motz bat egitea tematika erotikoarekin. Ni hasi nintzen buruari bueltak ematen, eta marrazkiak egiten. Orduan hor sartu zen Mariano Arzuaga, serigrafia munduan ibilitakoa, eta berak produkzio metodologian zenbait ekarpen egin zituen. Eta ostean sartu ziren Laia diseinu taldekoak, eta haiek nik egindako marrazki guztiei forma eman zieten. Harkaitz Cano ere egitasmoan sartu zen, bere lana apor-

niretzat ez da liburu bat, arte objektu bat baizik, liburu itxura duen arte objektua

tzeko. Azkenean bere ipuin baten gaztelerazko testu bat hartu dugu, 'Instrucciones para náufragos', izenbururako.


Prozesu luzea eta zaila izan da, baina azkenean liburuak kalean dago.


Hasieran sei hilabetetan egingo genuela pentsatu genuen, eta azkenean 15 hilabetetan egin dugu. Estanda eta gero, azala eta kontrazala, azkenengo oharak, fitxa teknikoak, itzulpenak eta abar egin behar izan ditugu. Hortaz, atzeratu egin da, eta bukatu otsailaren hasieran bukatu genuen. Liburuaren bizitzari hasiera emateko aurkezpen batzuk behar zirela pentsatu genuen. Euskal Herrian hiriburuetan aurkeztuko da: Gasteizen, Ar-
tiumen egingo da, hile honetan. Donostian, Koldo Mitxelenan, eta Iruñean eta Bilbon ere aurkeztuko dugu.

Liburuak aurkeztetear zaude, baina aurreratuko diezu GEUko irakurleei

nolakoa den? Tamaina, egitura, berezitasunak...

116 orrialde ditu. Neurriak dagokienez, 25 zentimetro luze eta 25 zentimetro zabal. Hartara, behin zabalduta 52 zentimetro ditu. Liburuak barrutik zuria da, ni oso hotza bainaiz, eta marrazkiak paper zurian nahiago ditudalako. Papera industrial da, baina kalitate handikoa, fin-fina. Tinta planoak erabili ditut marrazkiak egiteko. Kanpotik, berriz, kutxa beltz batean sartuta dago, babestuta. Kanpoaldea azalaren material berarekin estalita dago. Ehundura berezia eta goxoa dauka, gomazkoa da, ehundura iradokitzailerik eta berezia dauka. Beltza da, eta izenburua ere beltzez dago, justu justu ikusten da. 'Instrucciones para náufragos'. Soilik itxuraz' izenari dagokionez, esan behar dut euskarazko bi hitz horiek hautatu ditudala oso zabalak direlako, eta bakoitzak bere interpretazioak egin ditzakeelako.





89 marrazkiz osatuta dator liburua, Harkaitz Canoren testuek lagunduta. Zer-nolako harremana lortu duzue margoen eta testuen artean?

Harkaitz Cano hasi zenean marrazkientzako testuak bilatzen, ohartu ginen aukeratutako testuak eta marrazkiak galdu egiten zirela, eta ez zirela ongi konpontzen. Hortaz, hasi zen beste testu batzuekin lanean, eta halako batean topatu egin zuen bere pertsonaia bat hotel batean, pertsonaia hori gaurmahaiaren gainean dagoen liburu bat irakurtzen hasten zela, eta liburu hori hau zela. Nahiko surrealista da, baina oso ondo geratu da. Lehenengo unean harritu egiten zaitu, ez duzulako ezer ulertzen, baina osotasunean hartuta, erritmoa lortzen da, norberak josteko lana

hartzten badu, noski

Kutsu erotikoa bilatu diezu marrazkiei. Zer da erotismoa zuretzat?

Erotismoa non egon zitekeen pentsatzen hasi nintzen, eta egia esan, ez dakit oraindik non dagoen. Denean baitago erotismoa: gure bizitzan eta gure buruan dago. Erotismoa beste hizkuntza bat da, ukitu bat da. Pelikula bat erotikoa izan daiteke bakarrik bi pertsonaiaren arteko elkarrizketa batean, begirada batean, bi lagun ikutu edo besarkatzen direnean erotismoa egon daiteke, janzkeran, publizitatean... Gauza askotan dago erotismoa. Harremanetan ere bada, begirada batean, keinu batean... Erotismoa gure bizitzan beharrezkoa den gauza bat dela uste dut.

Eta nola islatu duzu erotismo hori marrazkietan?

Marrazki bilduma bat da, eta bigarren plano batean jarriko nuke bere erotismoa, bere tematika. Nire kasuan dena marrazki tapizen atzean jartzen da, eta nik uste dut lehenda-

bizi ikusten dela bere izaera plastikoa, eta bigarren plano batean agertzen dela zer den. Nire lan guztietan bezala beste artista askoren obrez jabetu naiz, haiek hartu, mugimendu batzuk egin, eta berriro atera ditut. Liburuan omenaldirik batzuk ere badaude: Tinto Brassen burdela, Akira Kurosawa argazkilariaren lanak... Liburu dena dago erreferentziaz beteta.

Askok galdetuko dute liburua salgai ote dagoen, eta zenbat balio duen...

Niretzat ez da liburu bat, arte objektu bat baizik, liburu itxura duen arte objektua. Objektu artistiko bat da, bai Estatuan bai atzerrian erakustekoa, eta galerien bitartez mugituko dut. Hortaz, bere prezioa dauka, hots, garestia da. Liburu hau koa-

dro baten modukoa da, beraz pentsa!●

**euskal herrian hiri-
buruetan aurkeztuko
da: gasteizen, artiu-
men egingo da, hile
honetan. donostian,
koldo mitxelena, eta
iruñean eta bilbon
ere aurkeztuko dugu.**





Begiei begiratzea
merkea da oso

bonardi 35€
armazoiak



ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel 33.
Gasteiz



Eskaintza hau 07-01-07tik 07-02-28ra bitartean egongo da indarrean



DIBUtec

Paper Berezak
Arte Ederretarako Materiala
Ink Jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopiak
Kamietan Estampaketak

azkarprint
Inprimatzaileak
Edozein inprimaketara

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ INPRIMATEGIA

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behean - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ

Dalvez
argitarazleak

bai
Bai Eskarari Zuzentzea
Guk zerbitzua
euskaraz

diseinu grafikoa diaz de olano kalea, 22 tl: 652 77 65 09
maketazioa fx: 945 24 52 69 info@dalvez.com

Zure denda erotikoa

SEX

PITTILIN GORRI

Sexua
euskaraz
bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

LA RIOJANA
jatetxea

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

on egin!

Aiztogile kalea (Kutxa), 33 tfnoa. 945 25 02 39



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia
• Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

Bacalao Giraldo

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

cd-a

'bidea eginez'

etxe | oihuka-2007ko martxoan | kemen.info

iraupen laburreko cd batean bildu zituen etxek bere lehen bost kantuak eta bere kitarra hartuta, lehen kontzertuak bakarlari gisa eman zituen. handik gutxira musikari lagunengana jo eta zuzenean lagunduko zuen taldea osatu zuen. horrela hainbat kontzertu eman zituen 2006ko udan zehar eta udazkenerako konposatuak zituen lan honetako kantuak. diskoa grabatua dago iada eta 'bidea eginez' izenburupean kaleratuko da martxoan zehar. durangoko plateruena kafe antzokian joko du lehen kontzertua martxoaren 24an.



liburua

'iturrino handia'

hasier etxeberria | susa-2007ko otsaila | susa-literatura.com

orson wellesek esan ohi zuenez, sekula egon den magorik handienetakoa zen the great iturrino, pertsona bat hiru zatitan egiten duen kaxaren asmatzailea: burua alde batera, oinak bestera eta enborra hirugarrenera. hasier etxeberriak cosme iturrino magolariaren bizitzaren une gogoangarriak agertu ditu 'iturrino handia' nobela berrian: anne eta belle, orson welles, john huston eta beste zenbait adiskiderek bizi izandakoak.



'Iturrino Handia'
Hasier Etxeberria
2007, nobela

zinea

llach: la revolta permanent

zuzendaria: lluis danés | gidoia: lluis arcarazo, lila pla | musika: lluis llach | katalunia
www.llachlarevoltapermanent.com

1976ko martxoaren 3an gasteizen, langile-batzar baten erdian, poliziaren bala-erasoak bost hildako eta ehundik gora zauritu eragin zituen. gau berean, amorrazioak jota, llachek trantsizioko kantarik adierazgarriena izango zena konposatu zuen: campanades a morts. gaur, hogeita hamar urte geroago, lluis llach gasteizera itzuli da martxoaren 3ko biktimak gogoratuz kontzertu jendetsu baten aurrean kanta horixe eskaintzera. espazioan eta denboran zehar eginiko bidaia, llach beraren musika eta hitzak gidari direla, zeinean oroitzapen autobiografikoak gertakari hauen protagonisten irudi eta testigantzekin tartekatzen diren. hau kanta baten istorioa da, berau idatzi zuen pertsonaren erretratua eta inspirazio-iturri izan ziren gertaeren kronika. ahanzturaren aurkako garrasia eta errebolta etengabeko eskakizuna.



EL ÚLTIMO REFUGIO

[txabi arnal gil]




Arratsalde goibel batean irudimena oporretara joan zitzaion artistari. Irudimena minduta zegoen azken bolada hartan artistak jaramonik egiten ez ziolako. Gauzak horrela, sekula ere ez bueltatzea erabaki zuen.

Gure artista berehala ohartu zen arazoaz, arazo larria, jakina, zeren eta, irudimenik gabeko artista, zer da? Ba al dago horrelako artistarik? Eta egonez gero, benetako artista izango al litzateke? Atsekabetuta, lanean jarraitu ahal izateko artista gogoetaz baliatzen ahalegindu zen. Alferrik! Gogoetak kapela zaharrak bezalakoak dira, hamaika aldiz erabilia berotzen ez dutenak. Irudimena, berriz, zapata berriak bezalakoak da, ibiltzeko beti prest, distiratsua, inolako urradurarik gabe.

Beraz, irudimena berreskuratzeko asmo osoz, artistak norabide gabeko bide batetik joko du, itsas ondoko aparteko hotel bateraino eramango duena. Bertan, bere arazoak konpontzera bidaiatutako pertsonaia asko ezagutuko ditu, oso ipuin ezagunetako pertsonaiak, hain zuzen ere: Huckelberry Finn, Long Jhon Silver, Sirenatxoa, Ahab Kapitaina eta On Kixotea, besteak beste.

El Último Refugio. Irudi Alburua eta komikia. Biak batean. Bikainak biak. Ederki gozatzeko liburu bat. Begiak irudietan "iltzatuta" izateko modukoa●

El Último Refugio. Roberto Innocenti, J. Patrick Lewis. Fondo de Cultura Económica, 2003



'CELOSAMENTE GORDEA',
irratitik tabernara

Barru-barruan gordetako uhinetatik harat

Gaizka Amondarain poeta eta Manex Agirre bertsolariak
'Celosamente gordea' irratsaioa aurkezten dute Hala
Bedi irratian; igandero, 22:00etatik 23:00etara.
Martxoan saioa kalera aterako dute lehen aldiz, Parral
tabernara hain zuzen, GEU elkarteak babestuta.

gaizka (ezkerrean) eta manex irratsaioan



t. anakoz amenabar a. edorta sanz

Aspalditik zuten buruan proiektua Gaizkak eta Manexek. "Beti egin nahi izan dugu antzeko saio bat", gogoratu dute. Gaizka Zebrabidean eta Manex Bertxoko saioetan ari badira ere, "Celosamente gordea" egiteko elkartu dira. Gai eta egitura aldetik aurrekoak baino "libreagoa" izango zen irratsaioa jarri nahi zuten abian. Pelikula, liburua, abestia edota eguneroko bizipena oinarri, euren sortutako testuak urtariletik dira entzungai Hala Bediko uhinetan.

Iaz Granadan elkartu eta Der Himmel über Berlin (1987) pelikula ikusi ostean hasi ziren ideiak dantzan. Lehendabiziko bi irratsaioetarako eta bertatik sortutako errezi-

taldi baterako ere hizketagai izango dute Win Wendersen pelikula. "Pelikula horrek hori eta askoz gehiagorako ematen du. Ikaragarria da", esan du Manexek. Film hartatik ideia asko eta elkarri bidalitako testu asko irten ziren. "Irratsaioan pisu handia izan du. Esan nahi genituen gauza asko eta asko bertan daudelako", gogoratu du Gaizkak.

Wendersen pelikularekin batera, Sarrionandiaren 'Ainhoari gutunak' liburua, Cortazarren 'La Casa tomada' ipuina, bakea edota segurtasunik eza izan dituzte hizketagai. Kolore eta mota guztietako gaiak, arlo ezberdinak ikutzen dituzten gai zabalak. Manexek nabarmendu moduan, askotan aitzakia baino ez dira hautatutako liburu edo pelikulak. "Ipuin bat edo poema bat hartu eta horren gainean zerbait esateko gogoia izaten duzu, ez da nahikoa irakurri edo entzutea. Aitzakia bat da zuk zeozer gehiago eransteko. Sortutakoarekin sortu". Hala osatzen dihoa saioa, testu bat entzun eta euren ekarpena haren gainean eginez, bien arteko lotura, bai eta testuena ere, bilatuz.

Ez zuten literaturari buruzko irratsaio bat egin nahi. "Gure literatura, gure ideiak, gure testuak modu berezi batean emateko txokoa nahi genuen". Musika eta testua uztartuz ordubeteko jolasa proposatzen dute, entzulearentzako bidaia. "Gauetz egindako bidaia izatea nahi genuke. Batzuetan izan daiteke bidaia depresiboa, bidaia psikodelikoa edo dugun igandearen araberrakoa", aipatu du Gaizkak.

Bidaia hori hasi eta amaitu egiten da igandero, etenik gabe. Hasieratik bukaerainoko programa da, atsedetik gabekoa. Hasieran, normalean galdera bat planteatzen da, eta amaieran gaia borobiltzen saiatzen dira. "Ibilbidea ixtea gustatzen zaigu, programa zirkular bat izatea. Eta aldi berean hasierak amaierarekin lotura edukitzea".

Dagoeneko buruan dituzte hurrengo irratsaioetarako gai posibleak. Freaks, Blow Up, Do the right thing, La Haine pelikulak edota Michel Foucaulten teoria izan dira proposamenen artean. "Haren teoriaren arabera, munduan badaude heterotopiak deitutako espazioak non edozein motatako jende

ezberdina elkartu daitekeen. Bertan sartzen diren mota ezberdinak hartuta testu bana egin daiteke", proposatu du Manexek.

"Azken batean denok barru-barruan gordeta dugunari buruz hitz egin nahi dugu. Edo atera daitekeen edo ezin daitekeen, edo ezinezkoa den. Literatura ere hori delako. Barru-barruan dauden gauza horiek ukitzea edo horretan saiatzea behintzat", esan du Gaizkak. Eta hori iradokitzen du, hain zuzen, irratsaioaren ize-nak: Celosamente gordea.

BAP taldeak abesti ezaguna egin zuen izen bereko poemarekin, eta irratsaioa da egun. "Alde batetik intimista izan daiteke. Bakioztzak celosamente gordea duen hori, barruko espazio bat. Guk hortik hitz egiten dugula, eta beste batzuk hortik entzuten dutela".

"Irratsaio libre bat da eta hori da nahi genuena. Denborarekin garatzen eta aldatzen joango dena, ziurrenik", adierazi du Gaizkak. Ez dira entzuleen menpe bizi eta ez dute betebeharrak komertzialik. "Irrati libre batean gaude, ez gaude Euskadi Irratian. Eta irrati libre batek zerbait badauka ona da guk nahi dugun hori egiten saiatuz gero esperimentatzeko espazio bat dugula"●



Irratitik tabernara

Duela bi urte hainbat tabernatan eskainitako emanaldien ondotik etorri da Celosamente gordea irratsaioa. Orain, berriz, kontrako norabidean, irratsaioa tabernako emanaldi egingo dute. Win Wendersen *Der Himmel über Berlin* (1987) pelikula izango dute, oraingoan ere abiapuntu. Irratiak ematen ez duen aukera horrekin, irudiak ematea alegia, testua eta musika tartekatuko dituzte. **Gasteizko Parral tabernan izango da aurkezpena GEU elkarteak antolatutako Kultur Errota barruan, hilaren 27an, arratsaldeko 20:30ean.**

XIRIKAk hiru urte, hiru aho, baina buru bakarra

Hiru urte igaro dira Xirika Gazteon Kazetak argia lehendabizi ikusi zuenetik. Geroztik astekariak gazteak eta ez hain gazteak astero-astero informatzen jardun du, besteak beste, GARA egunkariaren barruan. Une honetan Euskal Herriko euskarazko lehen gazte kazeta informatibo honek astekari bat baino gehiago izan behar duela sentitu dute bere egileek eta Xirika hirukoiztu egin da; xirika.com web orria eta Xirika KZ hilabetekaria jaio berri dira.

t. saioa fdz de arangiz a. xirika

Igaro den otsailetik aurrera, Xirikak hiru euskarri dituen proiektu integrala jarri du abian. Orain arte, astero-astero harpidetza bidez eta kioskoetan banatzen zuten 24 orriko argitalpenari (GARA egunkarian 16 orri agertzen ziren), Xirika web orria eta Xirika KZ hilabetekaria gaineratu behar zaizkio. "Orain arte, gazteok guk geuk egiten duguna islatzen saiatu gara, inguratzen gaituenaz ikuspegi gazte eta antikonformista bat eman dugu, gure artean komunikatzeko baliabideak eskaini ditugu eta gazte sortzaileei beren lana ezagutarazteko aukera eman diegu Xirika-Zezengorri argitaletxearen bidez", dio argitalpenaren zuzendaria Goizeder Tabernak.

Izan ere, pauso berri bat emateko beharra sentitu du Xirikak eta bi dira bere erronkak; hurbiltasuna eta parte-hartzea. Gaurkotasunetik, informaziotik eta irakurlearengandik hurbilago izan nahi du Xirikak, desinformaziotik urrunago, hain zuzen. Hori dela eta, egunero, astero eta hilero gazteak informatzeko ahaleginak egingo ditu. "Nabaritu genuen gaurkotasuna lantzeko moldean ahuleziak genituela. Zaila da astekari batean gaurkotasunez hitz egitea eta gure helburua egunero, astero, hilabetero gaurkotasuna ulertzen laguntzea da", azaltzen du zuzendariak. Gainera, euren irakurleak askotarikoak direla dio zuzendariak eta

"xirika gazteon kazetak erronka berriak ditu: hurbiltasuna eta parte-hartzea"

"ez da euskarri bat bestea gabe ulertzen: xirika berritua integrala eta osatuagoa da"

"harpidedunak xirikolari bereziak dira; webgunearen harpidedunen txokoan haiei zuzendu lehiaketa, zozketa edota promozioak aurkitzen ahalko dituzte"



goizeder taberna, zuzendaria

"gaurkotasunari jarraitzen diotenak eta ez diotenak ere asetzeko formula bat bilatu genuen", argitu du Goizederrek.

Gauzak horrela, egunero xirika.com web orriak eguneko gaiak landu egingo ditu, gaurkotasuneko gertakari bat larrugorritan aurkeztuko duelarik. Astero, berriz, Xirika FZNk gazteei interesatzen zaizkien asteko albiste garrantzitsuenak goitik behera aztertuko ditu. Azkenik, hilean behin, Xirika KZ argitalpenak erreportaje sakonak eta analisi pausatua eskainiko dio irakurleari. Hauek izango dira, beraz, Xirikaren hiru ahoak, gazte ororen eskuetan, irudiez



eskuratzeko bideak

> xirika.com

> xirika fzn: gara egunkarian + harpidedunen txokoa (pdf) + unibertsitatean (hilean behin)

> xirika kz: harpidetza bidez (39 euro etxean / 35 euro kioskoan. urte osorako) + euskal herriko kioskoetan (2 euro) + unibertsitatean

lagundurik, informazioa eta ezagutza jarriko dituzten euskarriak.

Gazteok gazteontzat egina

Xirika argitalpenak 2004ko otsailean lehen aldiz argia ikusi zuenetik, "Gazteok gazteontzat egina" izan da bere egin duen leloa eta jada egun planteatzen duen formula berri honetan urrunago eramango duena: are freskoagoa, biziagoa eta taburik gabekoa izango baita. Eta hori dela bide, gazteon parte-hartzerako bide gehiago zabalduko dituzte. Finean, "gazteontzako tresna bat" izan nahi duelako.

Aldizkaria jaio zeneko garai hartan, egitasmoa martxan jarri zuen taldeak behar batzuei erantzuteko beharra ikusi zuen: "Orduan egindako irakurketan lau puntu nabarmendu genituen. Batetik, gazteek gero eta gutxiago irakurtzen genuen

prentsa, are gutxiago euskaraz. Bigarrenik, gazteok gehienetan erdarara jotzen dugu gure artean komunikatzeko. Hirugarrenik, Euskal Herrian hedabideen bidez jasotzen ditugun ikuspegiak arrotzak dira eta azkenik, gazteria kolektibo pasibo gisa aurkezten dute hedabide nagusiek", diosku Goizederrek. Egoera horretan, hortaz, Euskal Herria bere osotasunean hartuko lukeen tresna bat, gazteok gure artean komunikatzeko tresna bat sortzea erabaki genuen", jarraitzen du.

Egun, Goizeder Tabernak, Lorea Diazek, Urtzi Etxeberriak, Jon Mikel Fernandezek, Aitor Kaltzakortak, Koldo Otamendik, Haritz Zubeltzuk eta Ion Olanok eratutako taldeak, laguntzaile sare zabal baten laguntzaz, aurrera eramaten dute Xirika egitasmoak●

Xirikaren hiru ahoak

xirika.com

Euskarri honetan eguneko albisteak nagusituko dira. Horrez gain, Xirikak eskaintzen duenaz gain, parte hartzeko ate guztiak irekiko dira erabiltzailearen klik batez. Besteak beste, foroa; bekak eta ikastaroak; gazteek bidalitako argazkien galeria; gazteon sorkuntza lanak eta truke azoka; eta ideia kutxa egongo dira erabiltzailearen eskura.

Xirika FZN

16 orrialdeko astekaria hiru bloketan banatuko da: aktualitatea, agenda eta kultura. Horrela, asteko gertakari nagusiak bildu egingo ditu, baita Euskal Herriko hitzordu nabarmenenei eta gazteek zein herri mugimenduek antolatutako ekimenei lekua utzi ere. Azkenik, musika gaurkotasuna, kultur ekimenak, gazte sorkuntza, sexualitatea eta komikigintza aurkituko ditu irakurleak hirugarren blokean. Otsailean kaleratu dute.

Xirika KZ

Martxoan lehen alea kaleratuko dute. Espezializazioa eta sakontasuna dira hilean behin argitaratuko den 60 orrialdeko kazetaren ezaugarriak. Erreportaia, umorea eta musika izango dira ardatzak. Horrela, egunerokoa ukitzen duen erreportaia sakona eskainiko du argitalpenak, 10 orri ingurukoa, non gaiaren azalpen argia emateaz gain, eztabaidarako tartea ere egongo den. Musika ere, bestalde, izango da Xirika KZren funtsezko osagaia. Bertan, erreportaia sakonak egongo dira, bai eta kontzertuen argazki galeria eta kritika eta talde maketeroen errepasoa ere. Hirugarren saila Astakerriarena izango da, umorea eta sorkuntzarena.

Azkenik, hiru atal hauen artean ikuspegi askotatik egindako bizi ereduen analisiak izango dira. Kultura, Internet, teknologia berriak, hezkuntza eta ikasleen eskubideak, kontsumoa, sexualitatea, drogak, nortasunaren eraikuntza... Hauek guztiak eta gehiago.




AHT

ABIADURA HANDIKO TRENA: BEHARRA ALA GEHIEGIKERIA?

Hilabete batzuk dira Luku inguruan AHTren eraikuntza makinak sartu eta lurren desjabetzeak hasi zirela. Batzuentzat premiazko garraiabidea izango dena, beste batzuentzat arazo larria.

t. anakoz amenabar a. argazki press / geu





MILA ELORZA,

AHT GELDITU! ELKARLANEKO KIDEA

Badirudi proiektuak atzera bueltarik ez duela

Atzera buelta badauka. Hemen ez dago ezer hasita. Momentu honetan geratzeko eskatu behar da. Hau eztabaidatu behar da eta ondoren ikusiko da zer egin. Dirutza izugarria da eta ingurumenean ondorio larriak izango ditu. Astakeria bat da.

Egitasmoaren berri zehatzik izan al duzue?

Sekula Euskal Herrian planteatu den obrarik handiena da, eta oraindik zalan-tza ugari dago. Obrak hasi dira, baina berez oraindik ez dira lurrak desjabetu hainbatetan, eta udaletxe askotan ez dago proiekturik. Suposatzen da udaletxeek, bigarren mailako erabakiak badira ere, erabakiak har ditzaketela. Zeinek egiten du azkenean proiektua, enpresak? Etorri eta makina sartu. Ezin dira gauzak horrela egin.

Garraio jasangarria izango dela dio Jaurilaritzak?

Bai, eta aldi berean Supersur eta Pasaiaiko portua aipatzen dizkigute. Azken batean Euskal Herriak zer tamaina duen ikusi behar dugu, zer eremu. Auto-bide berriak egin berri ditugu nonahi.

Zer egin behar dugu orain horiekin? Kaltea eginda dago, beraz erabili ditzagun. Noiztik ez da egungo trenbide sarean inbertitu? Jendeak beste bide batzuk topatu behar izan ditu. Dena da gehiago, beste bat. Zementu fabriketan akzioak dituztela ematen du.

Herri galdeketa proposatzen duzue

Galdeketa baino lehenago beharrezkoa da proiektu hau mahai gainean jartzea. Zer asmo duen, zer baldintza... Ondoren bai, gizarteari galdetu behar zaio. Informazioa ezkutatzen dabilta, erdi egiak esaten. Zenbat energia kontsumituko du benetan? Zer aztertu da? Zer plan egin da?

Alderdiekin hitz egin duzue?

Gasteizko manifestazioaren ondoren, bertako jendetza ikusita, beste pauso bat emateko unea zela uste genuen, eta alderdiekin egotea eskatu genuen, baina oraindik gutxirekin lortu dugu. Denak daude maiatzeko hauteskundeei begira. Orain arte interpelazio lanak alde batera utzi eta informazioa ematen ahalegindu gara. Azkenean ikusten dugulako herritik ez badator goitik ez dutela gelditu behar.





ARANTXA TAPIA,

GARRAIO ETA HERRI LAN SAILBURUORDEA

Zer onura ekarriko ditu Abiadura Handiko Trenak?

Trenbide sare hau beharrezkoa da, lehenengo eta behin, Europara lotzeko. Horrez gain etorkizuneko garapen ekonomikoa ziurtatzeko oinarriak orain jarri behar ditugu. XX. mendeko azpiegiturekin ezin dugulako XXI. mendeko garapena bermatu. Proiektu hau beharrezkoa da Euskal Herriak orain arte izan duen ongizate mailari eutsi eta hobetu nahi baldin badu.

Ingurumen kalteak eragingo ditu, eta hainbat herritarrek etxe ondotik ikusiko dute.

Eragina izango duela ukaezina da gure gizartearen edozein jarduerak eragina baitauka inguruan. Ahaleginduko gara edozein herri lanek sortzen duen kaltea ahalik eta txikiena izan dadin. Halere, tren sare berriak gizarteari ekarriko dizkion onurek neurri handi batean gainditzen eta justifikatzen dute azpegiturak sor lezakeen kaltea. Euskal Y-a garraio-sistema publiko ekologikoa da, errepideak baino askoz jasagarriagoa.

Ez al ditu hiriburuaren arteko loturak indartuko, tarteko herri txikien kalterako?

Abiadura handiko sareak hiriburuaren arteko konexioa hobetuko du eta eskualdeen artean desorekarik sor ez dadin, Jaurlaritzak hainbat inbertsio egiteko asmoa du lehendik dugun garraio publikoaren sarea osatu eta hobetzeko.

Gero eta sare itxiagoa eta eraginkorragoa lortu nahi dugu.

Jendea zein zamak garraiatzeko trenbidea izango al da?

Trenbide sare berria mistoa izango da, bidaiari zein merkantzientzat pentsatua eta diseinatua. Merkantzien garraioa errepidetik trenera eraman ahal izango da eta honek denbora eta erregai aurrezpenean onura garrantzitsuak izango ditu gure garraio sisteman.

Herritar guztiei zuzendutako garraioa izango al da?

Garraio publikoa den neurrian, eskainiko diren tren zerbitzuak gizarte osorako pentsatuak eta prestatuak izango dira. Madrid-Toledo adibide hartuta esaterako, ezin esan daiteke tren elitista denik.

Azken hilabeteotan AHTren kontrako mobilizazio ugari izan dira

Ez dakit hain ugari izan diren, uste dut ezetz, baina tira. Dakidana da trenaren alde dauden indar politikoek Legebiltzarraren gehiengo handi bat direla eta demokrazietan ordezkariak demokratiko eta parlamentariaren bidez gorpuzten dela nagusiki hiritarron iritzia publikoa. Obra aurrera eramateko ordua da, gizartearekiko komunikazioa ireki eta azpiegitura modurik onean gauzatzeko ekarpen guztiak baloratuz.



gasteizko ibilbidea

*ALEA IXTERAKO HONAKOA ZEN GASTEIZKO KORRIKAREN IBILBIDEAREN ANTOLAKETA. ORDUTEGIA EZ DAGO ERABAT ITXITA, BERAZ, MINUTUETAN AZKEN ORDUKO ALDAKETA BAT EDO BESTE EGON DAITEKE

- 229 Gasteiz Petronor-18:08:48
- 230 Mercedes sarrera nagusia-18:13:21
- 231 Otto sarrera-18:17:54
- 232 Otto-18:22:27
- 233 Seminarioa-18:27:00
- 234 Mexiko kalea-18:31:33
- 235 Euskal Herria boulevarda-18:35:27
- 236 Donostia kalea-Eusko Jaularitza-18:39:21
- 237 Blas de Otero-18:43:54
- 238 Baiona kalea-18:49:06
- 239 Forondako atea-18:54:18
- 240 Honduras-18:58:51
- 241 Gasteiz Hiribidea-19:03:24
- 242 Serafin Ajuria-19:07:57
- 243 Olano-Gasteiz hirib.-19:12:30
- 244 Etxezarra-19:17:03
- 245 Gaztelako atea-19:21:36
- 246 Salvatierrabide-19:26:09
- 247 Agirre Miramon-19:30:42
- 248 Nieves Cano-19:35:15
- 249 Las Trianas-19:39:48
- 250 Los Herran-19:44:21
- 251 J.Mardones-19:48:54
- 252 Judimendi etorbidea-19:53:27
- 253 Valladolid-19:58:00
- 254 Legutioko atea-20:02:33
- 255 Frantzia kalea-20:07:27
- 256 General alava-20:12:21
- 257 Ramon y Cajal-Florida-20:17:15
- 258 Dato-20:20:45
- 259 Andre Maria Zuriaren plaza-20:24:15
- 260 Resbaladero-20:27:45
- 261 Aitzogile kalea-20:31:15
- 262 Siervas de Jesus-20:34:45
- 263 Domingo Beltran-20:38:15
- 264 Domingo Beltran-20:41:45
- 265 Venezuela-20:46:18
- 266 Juan Garai-20:50:51
- 267 Zaramaga etorbidea-20:55:24
- 268 Reyes de Navarra-20:59:57
- 269 Legutioko atea-21:04:30
- 270 Zaramaga etorbidea-Boulevard -21:09:03
- 271 Zaramaga etorbidea-21:13:36
- 272 Agirrelanda-21:18:09
- 273 Artapadura-21:22:42
- 274 Abetxuko-21:27:15
- 275 Kristo kalea-21:31:48
- 276 Abetxuko-21:36:21
- 277 Zadorra etorbidea-21:40:54
- 278 Zadorra etorbidea-21:45:27
- 279 Zadorra-Cegasa-21:50:00
- 280 Gamarra-21:54:33
- 281 Barratxi kalea-21:59:06
- 282 Bergarako atea-22:03:39
- 283 Gasteiz N-1-zubia-22:08:12
- 284 Durana bus geltokia-22:12:45




BADATOR KORRIKA 15!

Martxoak 22-Apirilak 1,
Karrantzatik Iruñera

KORRIKA GASTEIZEN,
MARTXOAREN 23AN, OSTIRALA

MARTXOAK 16: KORRIKA TXIKIA



AURRETIK:

**MARTXOAK 2, OSTIRALA:
BIDE BAT, GORA TABERNAN**

**MARTXOAK 9, OSTIRALA:
KORRIKA GALA**

**MARTXOAK 17: SAGARROI,
AZKENA ARETOAN**

**KORRIKA BULEGOA GASTEIZEN
ARABA**

Arana, 30

01002 GASTEIZ

Tel: 945 261 220

Fax: 945 261 220

araba@korrika.org

**KORRIKA MATERIALA
ARABA**

• **Gasteiz: Takida denda. San
Francisco aldapa, 18.**

• **Gasteiz: Sugaar denda. Pinto-
reria kalea (Alde Zaharra)**

• **Laudio: Trenpea denda. Ezka, 2.**

**ARABAKO IBILBIDEAREN BITXI-
KERIETAKO BAT KORRIKA LEHEN
ALDIZ URTEGITIK PASAKO DELA
IZANGO DA.**

Euskal emakumeari

omenaldi hunkigarria kursaalen

AEK eta Korrikak otsailaren 24an euskal emakumea omendu zuten, antzerki, dantza, poesia eta musika ekitaldian.

Niko Etxartek jarri dizkio

musika&hitzak korrika 15eko kantari

Korrika 15eko kanta, Heldu Korrikari, Niko Etxartek konposatutako musika-ekin eta bere berbekin dator. Ohi bezala, Hapa-Hapa taldeko musikariak izan ditu Niko Etxartek laguntzaile. Kantuan, bestetik, Euskal Herri osoko ahots eta estilo desberdinetako abeslariak izan ditu alboan.

Abestiarekin batera Korrikako bideoa ere

Unai Iturriaga izan da bideoaren gidoilaria eta zuzendaria. Bideoa Karrantzako kobetatik abiatzen da, eta Iruñean amaitu, Korrika 15ek berak egingo duen moduan. Bideoko protagonistek euskararekin izan duten esperientzia kontatzen dute. Pertsona gramatikalek gidoiari hezurdura ematen diote

Hainbat emakume taldek sinatu dute

korrika 15en manifestua

Eta ale hau ixterako 4.417 sinatzaile zeuden orora

Korrika.blog: ziber-espazioko 0 kilometroa

Zuen iritzi, artikulua eta berriak txertatzeko aukera

15

korrika.org

ARABA eta topikoak (II)

[kike fdz. de pinedo, filologoa]

Araba "medio castellana"

Araba eta euskararen arteko harremanaz dauden zenbait aurreiritzirekin segida emango diogu aurreko artikuluari. Gaiari heltzeko aproposa iruditu zait interneteko foro batetik hartutako elkarrizketa hau:

"Este mensaje de protesta, lo escribo para que todo el mundo se entere que los alaveses vivimos oprimidos por el imperialismo vasco. Han anexionado nuestra amada Alava a su "tierra vasca". Alava históricamente, culturalmente y políticamente siempre ha sido castellana. Aquí la gente tiene en su mayoría apellidos castellanos, habla castellano y vota a partidos españoles. Excepto en la zona norte que es un poco vasca, que apenas consta de 4 pueblos. (...) Viva Alava castellana!!

Mezu honi bizkaitar batek erantzuten dio:

"Hay que ser más moderado en esas cosas. Alava, hablando coloquialmente, sería "medio castellana", no "castellana" si la comparamos con Guipuzcoa y Vizcaya. Lo mismo que la Ribera en Navarra, que se la podría considerar también "medio" castellana. (...) Se muy bien de qué hablo, ya que veraneo de toda la vida en la Rioja alavesa, soy vizcaino, y tengo familia en Navarra....

Lehenengo mezua ezaguna dugu Araban, hor daude Veleia taldea edo Unidad Alavesa alderdi ohia, aurreiritzia bainoago jarrera ideologiko antieuskalduna dugu atzean. Bigarren erantzuna, berriz, zabalduago dago. Funtsean ez da euskalduntasuna eta euskara ukatzen, baina zerbait ahula, difuminatua edo marjinala balitz bezala ikusten da, eta honen ondoan denetarako balio duen zehaztugabeko elebitasuna aipatzen da eta kitto. Eta bai, Araban beste hizkuntzak ere hitz egin dira historian

zehar eta hegoaldean eta mendebalean aspaldikoa da gaztelaniaren agerpena hizkuntza egoera konplexuak sortuz, baina era berean euskarari behar zaion tokia aitortzeko ordua ere bada. Argi esanda, mendetan euskara izan da hizkuntza nagusia eta berezkoa, are gehiago azken urteetan jakin ditugun datuekin (Geu-ren E. Breñas-J. Otsoa de Aldaren Arabako euskal hotsak, Lazarraga...)

Araba euskalduna



Honatz 7 datu labur-labur:

- 1- Badira euskararen duela 2.000 urteko hainbat arrasto (hilarrietako dozena erdi euskal izen eta Iruña-Veleiak ekar dezakeen guztia)
- 2- Arabar etorkinak omen ziren VIII-X. mendetan Errioxa eta Burgosko hainbat lurraldetara euskara eraman edo berrindartu zutenak.
- 3- 1025 urtean euskara indartsu agertzen da Donemiliaga erreja-agirian Arabako herrien izenetan.
- 4- XVI. mendearen bukaeran Larreako **Perez Lazarragakok** hegoaldeko lehenbiziko liburua utzi zigun. Lautadako noble bat maitasunez euskaraz, Euskal Herria eta Araba gorai patuz eta euskara aberatsa erabiliz, ekonomian bezala, hizkuntza arloan ere eragina eta loturak Gasteiztik iparralderantz emango zirelako adierazle, aldrebes bainoago.
- 5- XVII-XVIII. mendera arte hiru arabarretatik bi euskal elebakarrak ziren hamaika agirik erakusten digun moduan.
- 6- Nabarmentzekoa da XIX. mendeko Gasteizko politikari eta idazle ugariren euskaltzaleatasuna euskara eskolan irakasteko eskatuz.
- 7- Azken 30 urteetan ikusgarria izan da Araban eman den berreskurapena, eta dagoneko ez da inor harritzen (edo harritu beharko) kalean euskara entzunda.

Abizen arabarrak


Modu desberdinetan gauzatu dituzte euskal-dunek abizenak historian zehar. Ezaguna denez Araban eta Estellerrian ohikoak dira abizen konposatuak, eta hauekin batera ez dira falta *Gonzalez* edo *Perez* bezalako deitura patronimikoak. Bai batzuk zein besteak *kastellanoak* direlako ustea oso zabalduta dago. Uste hau, ordea, ustela da: Erdi Aroko Euskal Herriko dokumentazioa arakatzen hasi bezain laster konturatuko gara *Johan Sanchiz* edo *Pero Lopiz de Zegama*

moduko abizenak oso arruntak zirela, Bermeon, Bilbon, Ondarroan, Seguran, Lazkaon edo Ezkurrari. Abizen hauek, gero, baztertuko dira, batez ere sortutako baserri berrien izenetan oinarritutakoek ordezkaturik, ez ordea, Araban, gaur arte bere horretan iritsi baitira. Nola deitu hortaz 1611n sorgina zelakoan eta gaztelania ez zekielako interprete behar izan zuen auziperatutako Zekuianoko *Garzia Gonzalez* bezalakoak, "erdi kastellanoak"??



MAGDALENA DE ELORZA (Atauri). 1611


"y aviendo sela leydo y dado a entender el dicho ynterprete"
"porque jamas ella los avisto en el aquerlarre"



GARCIA GONCALEZ (Zekuiano/Sircujano).

1611ko ABENDUAREN 27an (24 urte)

"aviendo sido llamada una mujer de la qual por medio de Fr. Thomas de Galarça y Fr. Pedro Ladron de la orden de S. Francisco e ynterpretes de este sancto officio..."





ANA DE CORRES (Corres).

1611ko ABENDUAREN 22an (55 años)

"haviendo sido llamada una mujer de la qual por medio del padre Fray Thomas de Galarça del orden de San Francisco e ynterprete de la lengua bascongada"

udaberria



ERREZETA

AZALORE ETA ALMENDRA KREMA

[gamarrako ostalaritza eskola]

> Osagaiak:

Azalore 1
500 gr almendra hauts
30 gr gurin
Oilo edo barazki salda
Perrexil adartxoak
Oliba beltzak
Oliba olio
Txip patatak
Gatza



> Prestaketa

Oliba ale batzuk olio apur batez txiki-txiki egin turmixaz.

Azalorea ondo garbitu, orriak eta soberan dituen enbor zatiak kendu, eta ur hotzetan pasatu; ondoren gazitutako ur irakinetan egosi, ahal izanik su moteletan, azalorea apurtu ez dadin.

Atera azalorea uretatik, ondo xukatu, eta turmixaz ondo birrindu.

Eta amaitzeko gurina (epelduta) eta almendra hautsa gehitu lehenik, eta ondoren salda, guk nahi bezalako sendotasuna duen arte.

Gatzez dastatu eta plater sakon batean zerbitzatu; perrexil apur bat bota gaineratik, birrindutako oliba beltzak ere (apur bat), eta txip patata pare bat jarri erdi-erdian.



#SARASOLA





[MUNDINA]

MARTXOAK 3 - FRAGA 5



HISTORIAZUTABEA

Topikoez haratago...

[erlantz urtasun antzano. historialaria]



Batzuetan iruditzen zait, irakurle maitia, topikoen munduan bizi garela. Itota. Hitz larriak, badakit. Larriegiak? Ezin jakin. Adibide bat jarriko. Otsaileko 'Geu'n artikulua interesgarri pila zegoen, ezin orrialderik pasa begiak fijatu gabe, Arakis maixua, Ane Gebara maistra... Eta, tartean, Toti Martinez de Lezea idazlearen pasarte hau: "arabarrak, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak izan ziren Nafarroara indarrez sartu zirenak 1512an Albako dukearen agindupean".

Uf, geldi, geldi. Kontuz topikoekin. Armadak ez ziren orain bezalakoak. Errate baterako urte horietan Iruñea sutsuki defendatu zutenak alemaniar mertzenarioak ziren, nafar erregeen agindupean. Nola alderatu haiek eta Gernika bonbardatu zutenak? Hortaz, nola, zergatik, zertarako eta nori komeni ote zaion erlatibizatzea euskaldunon arteko adiskidetasuna, egun eta hemen, hor kanpoan egiten duen euriarekin?

Bertze era baterat erran dezadan: 1512an Nafarroarat igorri zituzten euskaldunak ez ziren joan nafarren aurka, euskaldunen aurka, eta are gutiago elkarren arteko gorrotoz. Urte batzuk berantago, Amaiurren eta, batez ere, Irun eta Hondarribian, bai gizonak bai emakumeak, horiek bai maitasun osoz lagundu zieten nafar gudariei gaztelarren aurka. Gipuzkoarrak eta lapurtarrak ziren laguntzaile horiek euskal independentziaren alde. Jende xumea, Oiartzun, Hendaia, Bidasoa eskualdekoak. Eta horiek dira, pairatzen dugun zaparradan, eta dagokidan historialariaren ofizioz, orain eta hemen oroitu eta omendu nahi ditudanak. Izan ere, irrikitan nago Kike Fernandez de Pinedoren artikulua bigarrenaren irakurtzeko, otsaileko 34-35. orrialde bitarteko lehen zatia zoragarria zelakotz. Topikoez haratago... Enmarkatzeko modukoa!

"ARABAKO HERRI IZENAK ALDATU DIRA HISTORIAN ZEHA?" (XII)

Bada Euskal Herri osoan, Araban ere bai, lehen etxe multzo zena eta gero jenderik gabe geratu zen gunea anitz. Egun, etxe metaketek "herri" deitzen ohi diegu euskaraz. Lehen, baina, gure lurraldeetako biztanleak euskaldun hutsak zirela, "herri" horrek "lur" erran nahi zuen, eta hortik abertzaleok oraindik erabiltzen dugun "Euskal Herria", eta egungo "herri" errateko "hiri" erabiltzen zen euskal ekialdean eta "uri" euskal mendebaldean. Hots, Araban, "uri".

Horregatik da Araban "Uribarri" herri pila. Horrek ez du erran nahi "herri" berriak zirenik, batzuetan izen aldaketa bizi zuten bakarrik zegozkien legeak, foruak, aldarazi zituztelakotz, eta ondorioz lehen bezalako herriak jada ez zirelako. Hor da "Urizahar" ere bai, edota "Urizar-Irizar" moduko abizenak, adibideak nonahi.

Nork daki, paper zaharretan duela mila urteko "Orive", "Oruve" "Horue" herria bazen. Eta behin, soilik behin agiritan "Uribe" idatzi zuten, 1487an. Arbasoek bazekitena, geroak erranen?

[? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es]

euskara dastatu

GEUrekin



| 5

maiatzak 11



15 korrika

KARRANTZA-IRUÑEA 2007 MARTXOAREN 22tik APIRILAREN 1era



badator!

eta Gasteizen...

Martxoaren 9an....	heldu...	korrika GAL Ari!!
Martxoaren 16an....	heldu...	korrika TXIKI Ari!!!
Martxoaren 23an....	heldu...	korrikari!!!

eta gainera...

Martxoaren 2an....	Gora tabernan	Bide bat
Martxoaren 17an....	Azkena aretoan	Sagarroi

laguntzailea:

GEU

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

æk heldu

ELKARLANARI EUSKARARI HERRIARI
HITZARI LEKUKOARI